



ARGIA

APURRIK ERE EZ AHULENENTZAT

DIRU-LAGUNTZA SOZIALAK JO-PUNTUAN
GIPUZKOAKO ALDUNDIAN ETA JAURLARITZAN

LARRUN: HERIOTZA DUINA

NANNI BALESTRINI: 70EKO HAMARKADAKO BORROKEN GAURKOTASUNAZ

HIBAI ARBIDE: "MUGAK IREKITZEKO ESKATU BEHAR DUGU"



JAKOBA ERREKONDOREN LIBURU BERRIA

Jakoba Errekondoren "BIZI BARATZEA" liburutik abiatuta, baratzea mundu askotarako ataria da. Oraingoan irudia eta komikia nagusi. Zortzi komikigile handien eskutik: Antton Olariaga, Asisko, Ainara Azpiazu, Mattin Martiarena, Joseba Larratxe, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Unai Iturriaga. Maialen Lujanbioren sarrerarekin



ESKURA EZAZU AGORTU BAINO LEHEN

☎ 943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
bizibaratzea.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 June Fernández
- 20 Bea Salaberri
- 21 Zigor Etxeburua Urbizu
Edu Zelaia
- 22 Jakes Bortairu



Abokatu lana utzita, kazetari dihardu Hibai Arbide, Atenasetik Greziako egoeraren berri ematen. Danele Sarriugarterekin mintzatu da. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
PABLO LA PARRA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Hibai Arbide: "Ondo landutako bertsioa beti da egia baino sinesgarriagoa" / Danele Sarriugarte Mochales
- 24 | Diru-laguntza sozialak: Aberatsak eroso, pobreak lupapean / Mikel Garcia Idiakez
- 29 | Espainiako hauteskundeak: Unidos Podemosk zerua du eskura, PPK lurreko gobernua / Xabier Letona
- 32 | Gatazka armatuak emakumeen ikuspegitik. Bakoitza bere bakea eraikitzen / Ane Urkola Agirrezabala
- 34 | Alfredo Espinosa, Agirre lehendakariaren sailburu fusilatua / Aitor Azurki
- 36 | Ura pribatizatzearen aurkako borroka Irlandan / Martin Mendizabal Garai
- 38 | Corrandescola, gaztetxoak katalanez inprobisatzen / Dabi Piedra
- 44 | Nanni Balestrini, idazlea: "Matxinadak ez dira paperean asmatzen, ekinez baizik" / Maria Colera Intxausti

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Axiel Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratiz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Llorente, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

PANORAMA

Fan Hemendik

Azken 6 urteetan egin bezala, Oñatin Espainiako polizia indarrak Euskal Herritik joateko salaketari eutsi diote jai giroan eta umore handiz. Datuek oso gordinak izaten jarraitzen dute. Pertsonako polizia gehien duen Europako zonaldeetako bat da Euskal Herria: 4.800 guardia zibil eta 2.000 Espainiako polizia inguru, 8.000 ertzain, 1.100 foruzain eta Frantziako 2.200 polizia. Espainiako armadak 1.200 bat soldadu dauzka gurean. Beraz, gaur egun, gutxienez, ia 20.000 lagun daude armatuta Euskal Herrian.

Argazkia: Ekaitz Zilarmendi





“Kulturaz ari garenean hiriburutzaz hitz egitea arraroa zait. Kultura da bizitzan egiten dugun guztia, ona eta txarra”

Benito Lertxundik Adarra Saria jasoko du (*Noticias de Gipuzkoa*).

argia.eus/multimedia



Euskal Herriaren ABDak

Euskal Herriko 26 zuzendarik eginiko beldur, zientziarik fikzio eta fantasiako laburmetraiez osaturiko film kolektiboa.



Ezkerra krisian al dago?

Europar, Espainiar eta Euskal Herriar, nork ordezkatzeko du ezkerra eta zein da bere egoera? Gaiak aritu dira Jule Goikoetxea eta Asier Blas.



KENZO TRIBOILLARD / AFP

Istiluak lan erreformaren aurkako manifestaziorik jendetsuenean

Sara Arruabarrena Azkarate

@s8ara

CGT Frantziako sindikatu nagusiak deituriko manifestazioak milaka lagun bildu zituen ekainaren 14an Parisen, lan erreformaren aurka. Manifestarien eta Poliziaren arteko liskarren ondorioz, 26 lagun zauritu eta 15 atxilotu zituzten. Frantziako Estatuko hiri nagusietan ere kalera atera ziren, esaterako Tolosan eta Marseillan. Ipar Euskal Herriar Miarritzeko ordainlekua blokeatu zuten, Hendaiaarako noranzkoan.

Askok lan erreformaren aurkako protestak amaitutzat jotzen bazituzten ere, manifestazio hauek erakutsi dute ez dela horrela. Milioi bat lagunek (80.000 Poliziaren arabera) Parisko kaleak bete

zituzten François Hollanderen Gobernuak ezarri nahi duen erreformaren aurka.

Orain arteko manifestaziorik jendetsuena izan zen Pariskoa, eta negarra eragiteko gasa eta ura botatzen duen kanoia erabili zituzten segurtasun indarrek. Hiriko hainbat tokitan ikusi ziren irudi gogorak.

Myriam El Khomri Enplegu ministroa eta CGTko idazkari nagusi Philippe Martinez ekainaren 17an bildu ziren, baina ez zuten adostasunik lortu eta ekainaren 23 eta 28rako mobilizazio gehiago iragarri dituzte CGT-tik.

Khomrik bultzaturiko legeak langileak errazago kaleratu ahal izateko aukera eskainiko luke. Besteak beste, negozio-zifrak okertuko balira edo enpresak berrantolatuko balira pertsonala murriztea ahalbidetuko luke.

“Norbere gorputzaz lotsa sentiarazten duten iragarkiekin amaitu behar da”

SADIQ KHAN, LONDRESKO ALKATEA

Edertasun molde jakin bati lotuta dauden iragarkiak metroan eta autobus publikoetan debekatzeko erabaki du Londresko Udalak, elikadura-jokabideetan nahasmendua sortu dezaketela iritzita. “Seme-alaba nerabeak ditut, eta asko arduratzen nau gaiak. Jendeari kalte egin diezaioke, batez ere emakumeen kasuan –adierazi du Khanek–. Inor ez litzateke presiopean sentitu behar, gorputz eredu irrealez inguraturik bidaiatzen duelako”. **THE INDEPENDENT (2016-06-15)**




ERRAUSKETAREN ADIBIDE BAT

Ivry Sur Seine-ko errauskailuak (Paris) urtean sortzen duen kutsadura

ur-lurrinetan nahasirik

180t	57t	36t	10t	3t	201kg	447kg	820kg	PBCak, dioxina bromodunak, nano- eta mikro- partikulak...
AZIDO NITRIKO	SUFRE DIOXIDO	KARBONO MONOXIDO	ERRAUTS (filtratzen pilatzen denaz gain)	AZIDO KLORIDRIKO	METAL ASTUN (berun, merkurio, aluminio...)	ZINK	AZIDO FLUORIDRIKO	



Iturria:
Ivryko datu
ofizialak.
(Collectiv 3R,
ZERO ZABOR)

Infografia:
GARBINE
UBEDA
GOIKOETXEA

“Informatzeko eskubidea mugatzen ari dira”

Axier Lopez

@axierL

Kazetaritza ez dela delitua berriz esan behar izan du ARGIAk gure lankide bati poliziak egindako eraso dela eta. Oraingo honetan Gorka Bereziartua izan da kaltetua. Gipuzkoa Zutik mugimenduaren asanblada bati buruz informatzen ari zela, Ertzaintzak bultzaka bota zuen lurrera, kalean eta egun argiz.



Zer gertatu zen hilaren 19ko arratsaldean Donostiako Gipuzkoa Plazan?

Gipuzkoa Zutik mugimenduak asanblada antolatu zuen. Ni han nintzen horren berri emateko. Hasi eta berehala Ertzaintza azaldu eta asanbladako kide bati identifikatzeko eskatu zion. Nortasun agiria eskuan zuela, ertzainek bultzakadak eta kolpeak emateari ekin zioten. Orduan hasi nintzen grabatzen. Baina hara non, egoera baretzen hasia zenean, ertzain bat niregana etorri zen telefonoa kendu nahian. Behin eta berri kazetaria naizela esan banuen ere, bultzaka egin, prakak eta jertsea apurtu eta lurrera bota ninduen.

Aurrena kamera kentzen saiatu, lurrera bota eta ondoren identifikatu?

Hori da. Ez zuen lortu kamera kentzea eta bultzaka hasi ziren. Lurrean nintzela asanbladako kide bat nire gainera bota zen eta berak babestu ninduen tarte horretan aterahal izan nuen nire kazetari txartela.

Bideoan argi ikusten da ertzaina espresuki zure bila doala mugikorrez grabatzen ari zarelako. Zer dute ezkutatzeko kalean egun argiz?

Ez zaie eroso egingo asanblada batean modu baketsuan bilduta dagoen jendearen kontra nola oldartzen diren erakustea. Ertzaintzaren jarrera beste bat izan balitz, ez zen inolako istilurik izango. Tentsio guztia jendea identifikatzeko tema horrek sortu zuen.

Sorreratik (23 egunez) informatu duzu Gipuzkoa Zutik-i buruz. Nola bizi izan duzue kazetariak Ertzaintza eta udaltzainen jarrera?

Presioa etengabea izan da. Dinamika baketsua eta lasaia da Gipuzkoa Zutik, aldarrikapenak jai giroan eta modu irudimentsuan egiten ditu. Poliziaren jarrera bortitzak jendea ez hurbiltzea bilatzen du nire ustez. Tentsio egoerak sortuz, herritar askok nahiago izaten dute distantzia bat mantentzea kalterik ez jasateko. Normala da, ertzainek dantzan ari den jendearen kontra ere borrak erabiltzen dituela ikusten baduzu.

Mozal Legea ez aplikatzeko konpromisoa hartu duen Espainiako Estatuko lehen lurraldean gertatu da hori guztia. Lege horri darion logika urratzailea uste baino zabalduago al dago?

Logika hori aplikatzen jarraitzen dute. Adibidez, grabatzen ari zarenean nahi-taez identifikatu beharraren erruz lortu dute guk informatzeri uztea. Igan-dean nire jarraipen informatiboa bertan behera utzi behar izan nuen, egoerak sortutako ezinegonagatik.

Informatzeko eskubidea mugatzen ari dira. Mozal Legea aplikatu ala ez, bere logika zigortzailearen barruan funtzionatzen ari dira. Agintarien adierazpenak oso eskertzekoak dira, baina egunerokoan erakutsi behar dute informatzeko eskubidea bermatzen dutela, demokraziaren oinarrietako bat hori delako eta zaindu behar dutelako.

EKONOMIAREN TALAIAN

Ez etsi Arcelorren ultimatumaren aurrean



Juan Mari Arregi

Arcelor Mittal multinazionalak daraman ultimatum politikarekin pixkanaka nahi duena lortzen ari da. Eusko Jaurlaritzarekin gauza bera egin du orain; ikusi beharko da azken erabakia zein den eta xantaia-aren aurrean etsiko ote duen. Indiako multinazionalak Sestaoko planta iteko mehatxua egin zuen ez bazen bere proposamena onartzen: uztailetik aurrera asteburuetan baino ez irekitzea 12.000 tona bobina beltz produzitzeko, lantaldearen erdia soilik erabiliz –346 lanpostu, kontratazioak kontuan eduki gabe–. CCOO eta UGTren eskutik, beldurra erabiliz eta ELA eta LABen kontra eginez, lortu zuen lantaldearen gehiengoak –143 alde, 127 kontra– proposamena onartzea. Lanpostu guztiak mantentzeko defentsa sindikal bateratua hautsi egin zen horrela.

Multinazionalak munduko burtsa handienetan kotizatzen du eta akzio-dunen artean dibidenduak banatzen ditu. Krisian dagoen enpresa balitz moduan ordea, Jaurlaritzari energiaren arloko laguntzak eskatu dizkio eta horiek gabe ACB ez dela berriz irekiko esan du. Eusko Jaurlaritzaren esku dago orain multinazionalari torlojuak estutzea eta amore ez ematea. Diru publikoaren kudeatzaile denak, laguntza horiek ematea erabaki beharko luke soilik Sestaoko industriaren etorkizuna bermaturik ikusi-koko balu, inguru horretan langabezia eta krisia oso sakonak baitira. Baina inolaz ere ez luke multinazionala babestu behar lantegiaren pixkanakako itxiera baldin bada azken emaitza.

Eusko Jaurlaritzak badu beste esperientzien berri: laguntza publikoak eman izan dizkie enpresa multinazionalari eta ondoren desagertu egin dira edo produkzioa deslokali-zatu dute. Hortxe dugu Jofel Industrialen jabetzako Virtisúren kasua Enkarterrietan.



Nork jarri zituen Donostian Espainiako erregearen ongi-etorri kartelak?

DONOSTIA. Donostia 2016k Espainiako erregea Donostiara gonbidatu duela baliatuz, iragarki ofizialak bailiran Donostia 2016ren kartelak agertu dira kalean. “¡Bienvenido!” handiz, *ongi etorri, bienvenue, welcome* txikiz, Espainiako erregearen figura nabarmenduz. Aferak zeresana eman du whatsapp, telegram eta sare sozialetan, harridura, eztabaida eta haserrea eraginez. Europako Kultur Hiriburutzarekiko kritikoa den DSS2016, Donostia \$aldu eta Suntsitu kolektiboak egin du ekintza, eta nola egin duten azaldu du bideo bidez, *Pentsatu, ez sinistu* lelopean. Bideoa ikusgai dago argia.eus-en.

Arnasaldia eta kolpeak euskarari

Argia

@argia

Euskaraz bizi nahi dugunok berri pozgarria jaso dugu, baina oraindik oztopoz betetako bidea dela erakusten diguten beste bi albiste izan dira aste berean.

Iruñeko haur eskolak

Iruñeko haur eskolen euskarazko eskaintza zabaldu ahal izango du Iruñeko Udalak. Eskaintza horren aurka jarri zuten kaute-lazko neurria gelditu du Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak, eta euskarazko aurre-matrikula egindakoek aurrera segituko dute.

Kargu-hartzea euskarazko etiketei

“Etxeko Baratz”-ko nekazarien salment-postuari kexa formala ezarri zion Gasteizko Udaleko Osasun Saileko langile batek produktuen etiketak soilik euskaraz idatzita zeudelako. Santa Barbara plazako azokan gertatu zen.

Baxoa euskaraz

Aurten ere, gaiak euskaraz ikasi dituzten Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikasleek, Seaskako Etxepare lizeoek, frantsesez egin behar izan dute Baxoa. Eta aurten ere, Baxoko ikasgai guztiak euskaraz pasatzeko eskubidearen alde egin dute protesta.

ERREFUXIATUAK



65,3

milioi errefuxiatu zeuden 2015ean munduan, ACNUR erakundearen arabera. 60 milioiren langa gainditu da lehenengoz.

44

Saharaz hegoaldeko Afrika da errefuxiatu gehien jasotzen dituen: 44 milioi lagun. Europak 4,39 milioi eskaini die babesa; horien %58 Turkiak hartu ditu.



HEZKUNTZAKO MURRIZKETEN AURKA

Datorren ikasturtetik aurrera, EAEko irakasleek astean bi lanordu gehiago egin beharko dituzte eta horrek, diote, 3.000 lanpostu inguru galtzea ekarriko du. 15.000 lagunek baino gehiagok sinatu dute erabakiaren aurka. Ordezkapenetan emango den murrizketa eta ikasle-ratioen gorakada ere salatu dute.



EMAKUMEEN %87 JAZARTUAK

Txistuak, komentario iraingarriak, jarrera desegokia, sexu eraso zuzenak... Emakumeen %87k jazarpena jasan dute metroan edo trenetan, Frantziako Estatuko 6.000 emakume baino gehiagori egindako inkesta baten arabera.



BREXIT KANPAINAREN ERDIAN, MIGRAZIOA

Erresuma Batua EBtik ateratzearen aldekoek migratzaileak jarri dituzte jo puntuan. “Mugak berri kontrolatzeko beharra” azpimarratu dute, ohiko argudio xenofoboak astinduz.

Zergatik urratu zuen Ertzaintzak informazio eskubidea?



Xabier Letona

@xletona

GORKA BEREZIARTUA ARGIAko kazetariari egin dio eraso oraingoan Ertzaintzak, Gipuzkoa Zutiken batzar baten nondik norakoak jasotzen ari zela. Grabatzen ari zela hurbildu zitzaion ertzain bat eta bere lana egitea eragotzi zion, kamara kentzeko ahaleginean lurrera botaz eta, galtzak eta jertsea apurtuz. Erasoaren aurrean, kazetaria zela argi adierazi zion Bereziartuak ertzainari, baina horrek ez zuen honen oldarra gerarazi. Bai eragotzi zuen, ordea, kazetariak bere lanarekin jarraitu ahal izatea, gertatu zena guztiz jasotzeko aukera barik utziz. Ertzaintzak eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak, beraz, bi galdera sinple erantzun beharko lituzkete: bat, zergatik zapuztu zuten Bereziartuak gertakariez informatzeko duen eskubidea? Bi, zergatik hain era bortitzean?

Ez dut erantzun egoki baterako esperantzarik, ordea. Lander Arbelaitz ARGIAko kazetariak antzeko egoera bat jasan zuen 2013ko apirilean –are eta bortitzagoa– Donostiako *herri harresia*-ren gertakizunen berri ematen ari zela. Gero Rikardo Arregi Saria jaso zuen lan harengatik. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean argi erantzun zion Iñigo Iturrate jeltzaleak: “Ertzaintzaren jarduera eredugarria izan da”. Esperantzarako zirrikituak, aldiz, beti utzi behar dira irekita, batez ere Herrizaingoan agintzen duen alderdi bereko kide ugari oso bestelako iritzia dituztelako informazio eskubideaz.

Maiatzean eman zion Bizkaiko Diputazioak saria Radio Euskadiri, honek bere 70 urteko ibilbidean “askatasuna eta pluralitatearen alde” egindako lanagatik. Bidezkoa eta logikoa den lege, EITBko goi kargu batek pozik hartu zuen saria: “Radio Euskadiri esker, beren egoera fisikoa arriskuan jartzen duten pertsona askoren lanaren ondo-



rioz, informazio askatasuna eta ideien askatasuna etxe guztietara iristen da”.

Kendu aipatu irratiazen izena eta jarri edozein komunikabiderena. Informazioa askatasunean sinesten duen edozeinek sinatzeko modukoa da esaldia. Baina ARGIAko kazetariari ez zioten utzi bere ikus-entzunezko lanarekin etxe guztietara iristen. Zergatik? Zein kalte egiten zion Ertzaintzari? Edo akaso galdera bestelakoa izan behar da: zein kalte egiten zion botereari?


ERTZAINZAK eta haren arduradun politikoek erantzun beharko diote horri, baina bistan da herritarren askatasunari guztiz lotua dagoela eta berau etengabe ari dela bortxatzen Ertzaintza –eta Donostiako Udaltzaingoa– Gipuzkoa Zutik mugimenduari dagokionez. Bereziartuari gertatutakoa larria da askatasunen ikuspegitik, baina hori bezain larria da herritarrek baimenik eskatu gabe ezin batzarrik egitea Diputazio aurrean –edo haiek erabakitzen duten espazio publikoan– eta Ertzaintzak identifikazioaren aitzakian, batzara eragozten saiatzea.

1992an Corcuera Legea abiarazi zuen izen bereko PSOEko ministroak. Besteak beste, polizia herritarrak

edonon identifikatzeko atea guztiz ireki zuen. Eskubideetan atzera egin zen nabarmen, hala baloratu zuten alderdi guztiek, PSOEek izan ezik. Gerora, Mozal Lege ospetsuak informazio eskubidea polizien erabakiaren esku utzi du: poliziak nahi badu grabatzen da, bestela ez. Hori gertatzen ari da Gipuzkoa Zutiken, izan kazetari edo izan herritar –nork zehazten du kazetari izatea zer den?–, Ertzaintzak eta Udaltzaingoa batean bai eta hurrengoan ere bai grabaketak egitea debekatzen dituztenean. Mozal Legea ere atzerakada handia dela iritzi diote ia denek, salbu eta PPK eta poliziaren hainbat sindikatuk. Ertzaintzaren kasuan Erne presionatzen ari da Mozal Legea aplika dadin. Eusko Legebiltzarrak eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek, ostera, lege horren aurkako ebazpenak onartu berri dituzte. Orduan, nola uler liteke Legebiltzarrean aurka egotea eta gero kalean indarrean jartzea?

Herritarren, kazetarien eta oro har gizarte zibilaren zaintza barik, eskubideak urardotzeko joera etengabea da boterearen aldetik. Horregatik da hain garrantzitsua Bereziartuak erabiltzen zuen mugikor hura, eta Ertzaintzak ere gogoz kendu nahi izan ziona. ■

1874 : HITLER-en bonbaketak baino baina Lehenago,
GERNIKAKO ESTATUTUAK baino mende bat aTZERAGO,
ESPAINIAKO LEHEN ERREPUBLIKAK ere, NORMALIZAZIOA :



Si el famoso árbol de Guernica da este fruto, procuremos que no vuelva a retoñar.

1. Concha jeneralak, NORTEKO GERRAKO buruak, ez zuen gauza handirik ZERRATUKO: URTE HARTAN berean GARBITUA eta GARBITUA izan BAITZEN ABARTZUZAN: 45000 espainiar soldaduk Ebro gurutzatu ZUTEN aTZERA.
2. FRANTSESEN Lehen errepublikak ere argi zeukan <FANATISMOA EUSKARAZ MINTZO da> ZIOELARIK...
3. PETROLIOZ egiten ZIREN ORDUKO aTENTATUAK.

CK

KARIKATURA ZUMALAKARREGI MUSEOAN dago

Hondakinen lobbyaren aurrean “ezin da” esan du Manuela Carmenak



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

“Zerbitzu publikoen bermunizipalizatzea” eslogan polita da programetan, korapilatsuagoa praktikan. Manuela Carmena, Podemos izeneko ezker berriaren izarretakoa, hondakinen kudeaketa pribatua berriro udalaren esku jartzeko promesarekin iritsi zen Madrilgo alkatetzara. Urtebete baino lehen, justu alderantzizkoa egin du, ACS, Ferrovial eta FCCri zerbitzua urte gehiagotarako esleitu.

“No se puede” esan du Madrilgo alkate Manuela Carmenak, Espainiako M15 osteko ezker berriaren leloa gezurtatuz. *El País* egunkariak martxoaren 15ean titulatu zuen: “Carmena renuncia a municipalizar el servicio de recogida de basura” ondoren argitzeko udalak Madrilgo hondakinen kudeaketa pribatu lagako duela lau urterako. Agintzen egongo den aldi osorako, alegia.

Horrela baztertu du Podemosek Madrilgo udalerako aurkeztutako programaren osagai nagusietako bat: “Udal zerbitzuen kudeaketa publikoa progresiboki berreskuratzeko estrategia finkatu (...) zaborren zerbitzua bermunizipalizatzeke”.

Carmenak alkatetza hartu eta laster, 2015eko abuztuan, *Lo que debes saber* hedabide elektronikoak jakinarazi zuen hondakinen gatazka hasia zela Madril: “Las grandes constructoras y Carmena entablan un pulso por el negocio de la basura en Madrid”. Feliciano Tise- rak zioen: “Bataila mahai gainean dago. Eraikuntzako korporazio handien –FCC, ACS eta Ferrovial– filialak diren zabor bilketako konpainiak presio egiten diote Manuela Carmenari (Agora Madrid) zabor bilketako kontratuak mantentzeko eta ahal bada hobetzeko”.

Madrilgo hiriko zabor bilketaren kontratua –ez nahastu kale garbiketarenarekin, nahiz eta hau ere gehien bat korporazio horien beren eskuetan egon– 2015eko urrian amaitzen zen eta urtean 100 milioi euro mugiarazten zi-

tuen. Carmena, zioen kronikak, zalan- tzan zegoen, edo hiru handiekin tratuak berritu, edo ziztu bizian 1.900 langileko zerbitzua udalaren esku berriro hartu.

Udalak urte beteko luzapena eskaini zien konpainiei. Hauek bazekiten Carmena denboraz larri zebilela eta hamar urterako kontzesioaz gain prezio ho- beak eskatzen zizkieten. Tarteaz zegoen zabor bilketan kaosa sortzeko arriskua, CCOO eta UGT sindikatuen mehatxuen- gatik. Eta Carmenak amore eman du.

Aferaren mamia ezagutu nahi duenak ondo egingo du Diego Sanz Paratcha- ren “*El cambio en Madrid tropieza con la basura*” leitzeara *Diagonal* aldizkaria- ren webgunean. “Carmenak berriro hiri hondakinak enpresa handien eskuetan jarri ditu. Adituek eta bermunizipali- zazioaren aldeko taldeek salatzen dute borondate politikorik eza”.

Madrilgo Ingurumen zinegotzi Inés Sabanese bi argudiorekin justifikatu zuen erabakia: 1.900 langile konpainia pribatuetatik udal konpainia berri ba- tera subrogatzeko denborarik eza eta Gobernuaren murrizketa planek enple- gu publiko berriari jarri dizkieten mu- gak. Konpainia pribatuek 2016ko aza- roan eskuratuko dituzten kontratuekin, edozein publikatze plan atzeratuko da gutxienez 2020. urtera, edo ziurren- ki gehiago, lehiaketako baldintzetan bi ur- teko luzapena eskaintzen delako.

Agintari ezkertiarren *ximurtzea* es- plikatzeke lehen gakoa Sanz Paratcha- k ikusten du Manuela Carmenaren eki-

poaren izaeran. Podemoseko Iñigo Erre- jonek pertsonalki fitxaturik, Carmenak bere jendez osatu zuen Gobernu talde osoa, salbu eta bi zinegotzi, horietako bat Ogasuneko Carlos Sánchez Mato, hondakin bilketako kontratuarekin kri- tiko agertu diren bakarrak.

Carmenak alkatetza hartu bezain las- ter kargu berri bat sortu zuen, hiriaren kudeatzailea (*Gerente de la Ciudad*), Carmen Román Reichmanni eman zio- na. Madrilgo Gobernuaren Ogasun minis- terioko eliteko funtzionarioa, zuzendari nagusi izana da bai Aznarren eta bai Za- pateroren gobernuetan. Bere kontrol- pean dagoen udaleko zerbitzu juridikoa izan da Ana Botellaren (PP) pribatiza- zioak bermatu zituen... eta Carmena- ren kanpainako publikatze promesak baztertzeari gomendatzen duena.

Arazo teknikoak ala borondaterik eza Madrilgo porrotaren esplikazio bila kazetariak galdekatu ditu Jorge Riera Madrilgo zerbitzu publikoen bermuni- zipalizazioaren aldeko plataformakoa, Enrique Villalobos Madrilgo auzo el- kartearen federaziokoa eta Jordi Colomer i Mise zerbitzu publikoen kudeaketan aditua –bide batez esanda, Gipuzkoan Usurbil eta Hernanin hondakinen Atez Ateko bilketa antolatu zuena–.

Denak datoz bat esateko zerbitzu pu- bliko pribatizatuak berriro esku publi- koetara ekartzeko garrantzia handia duela ekipo juridikoa gaiarekin konpro- metituta egoteak. Baina zer egin admi-





“Voz Populi” hedabidearen argazkian, Manuela Carmena Madrilgo alkatea udaleko bilkura batean. Hondakin zerbitzuak udalaren enpresa publiko baten esku uztea Podemos-Ahora Madrid hautagaitzaren promesa nagusietakoa izanik, horren kontra mugitu zaizkio korporazio handiak, gaia teknikoki bideratu behar zuten udal zerbitzu juridikoak eta CCOO eta UGT sindikatueta buruak, PPK antolatutako pribatizazio operazioak bere horretan jarraitu dezan aldekoak Jorge Riera Madrilgo zerbitzu publikoen bermunizipalizazioaren aldeko plataformakoaren iritzian, “Carmenaren konfidantzazko ekipoa IBEX-35aren alde aritu da lanean”.

nistrazioan aurkitutako ekipo juridikoa erabat kontserbadorea baldin bada?

Colomerrek aitortu du Arenys de Munten ur zerbitzua berriro udalaren esku jartzeko udalaren teknikoen paraleloan enpresa publikoan zerbitzu juridiko propioa antolatu behar izan zutela: “Edo aurkitzen duzu halako ‘gerrillero’ tipiko bat edo lagunduko dizun taldea osatu beharra daukazu”.

Honetan, paradoxikoki, gastuetan aurrezteko nahia muturreraino eramateak ezkerreko agintarien kontra jo dezake: Madrilgo zinegotziek behar zituzten baino aholkulari gutxiago edukitzean “azkarrago joateko ahalmenari uko egin zioten”, dio Villalobosek, “nahi duten hiri eredia lortzekotan askoz aholkulari gehiago behar zituzten”.

Bigarren zailtasun nagusia ere, Gobernutik Montorok administrazioei

ezarritako murrizketa eta mugak, gainditzeko modukoa izan daiteke. Kontratuak aldatzerakoan konpainia pribatu batetik bestera bezala, 1.900 langile berdin pasatu ahal izango lirateke enpresa pribatu batera. Bestalde, Madrilgo diru kontu aski txukunek baimentzen diote enpresa berriak sortzea eta enplegu berriak sortzeko muga gainditzeari, horien artean hondakinen kudeaketari.

Gainera, enpresa publiko batek etekinik eman behar ez izatean eta BEZa ordaindu beharrik ere ez, udalak erabaki dezake zerbitzua modu eraginkorragoan eskainiko dion zerbitzu bat sortzea. Antza denez, arrazoi guztiok baloratuta publikatzearen bideari eutsi nahi zion Carmenaren Ogasun zinegotzi Sánchez Matok.

Baina ezin izan da. CCOO eta UGTko buruek ere publikazioaren kontrako lana egin dute –“oinarrizko afiliatuak alde zeuden, baina 20 urtez lanik egin ez duten liberatuak ez, berriro lanera bidaliko zituzten beldurrez”, esan du lekuko batek– eta Florentino Pérezek ACS-Urbaser eta Carlos Slimen FCCk lortu dute nahi zutena.

Azkenean, hondakinen kudeaketa eredu kontua zena, zerbitzu publikoaren kontrata pribatu erraldoien arteko lehian geratu da: Florentino Pérez versus Felipe Gonzálezek lagun Carlos Slim.

Bitxia da Espainiari hainbeste begiratzatzen dion Euskal Herriko iritzi publikoan zein oharkabea pasatu duen Madrilgo albiste hau. Gipuzkoako hondakinen aferan argi egin eta sindikatuak bezala ezkerreko alderdiek aipatzen duten bermunizipalizatzea benetan eztabaidatzeko aukera ematen du. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com





Hibai Arbide, kazetaria

«Epaiketa batean, ondo landutako bertsioa beti da egia baino sinesgarriagoa»

Ezagutu nuen egunean, mugei buruz hitz egin zuen Hibai Arbide Azak. Esan zuen demokraziaren aurkako mekanismoak direla, jendea kanporatzeko balio baitute. Orduraz geroztik, bi urte joan dira ia, eta gero eta jende gehiago dabil alderrai, mugak ezin zeharkatu.



Danele Sarriugarte Mochales
@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zuzenbidea ikasi zenuen.

Bai. Zientzia politikoak ikasi nahi nituen, baina zuzenbidean ari ziren pare bat lagun, eta pragmatikoagoa iruditu zitzaidan. Printzipioz ez nuen abokatu moduan lan egin nahi; hala ere, bederatzire urte egin nituen horretan. Lehenengo bulego oso *pijo* batean, eta gero, bestelako bulego batzuetan: Jaume Asensekin eta Layret kolektiboan.

Nola uztartzen dira aktibismo politikoa eta zuzenbidea?

Nire jarduna beti egon da lotuta mundu-ikuskera jakin batekin. Batzuetan, abokatu militantea zara, eta zuzenbidea hartzen duzu ekiteko eremu politiko moduan. Beste batzuetan, aldiz, militanteen abokatua zara, borrokan ari den jendea babesten duzu.

2014an mahai-inguru batean aditu zintudan, San Telmo Museoa, eta gogoratu datorkit zer esan zuen han bertan Eli Vásquez abokatu ekuadortarrak.

Bai, Elik bi abokatu mota bereizi zituen: giza eskubideen aldeko abokatuak eta estolderia-abokatuak. Giza eskubideen aldeko abokatuak mekanismoak baliatzen dituzte, adibidez, Giza Eskubideen Europako Auzitegia, jurisprudentzia jakin bat lortzeko: berme handiena es-

kaintzen duten markoak hartzen dituzte (nazioartekoak, normalean), eta gero horien emaitzak tokian toki mamitzen saiatu. Elik, ordea, bestelako bide bat proposatzen zuen: zuzenbidea hackeatzea. Ez dut uste bide kontrajarriak direnik.

Kasuaren arabera ere izango da, ezta?

Guztiz. Estrasburgora iristeko azpiegitura jakin bat behar duzu, ibilbide luze-ko kasu bat. Euskal Herrian, ezker abertzaleak izan ditu halako kasuak, baina, oro har, edozein erakunde politikok eraman zaitzake errazago bide horretatik, oinarritzko azpiegitura politikoa badauka. Hemen urte luzetako kondena izan dira, eta ondorioz, ikusmolde horretan ere pentsatu da: Estrasburgora iritsi eta han ezar dezatela zer egin beharko lukeen Espainiako Estatuak. Gero, sarri, Estrasburgok markoa ezarri du, eta Espainiako Estatuak jaramonik egin ez.

Elik aktibista transekin eta sexu-lan-gileekin jarduten du, eta horiek antolatuta daude, baina ez daukate halako azpiegiturarik ere, Giza Eskubideen Latinoamerikako Auzitegira jotzeko. Bezero prekarioagoekin ari zarenean kontua da bidezidorrak bilatzea, emaitzak ahalik eta azkarren erdiesteko.

Gogoan al daukazu talka hori islatzen den kasuren bat?

Bada, Madrilgo Patio Maravillas gizarte-zentro autogestionatua salatu zuten, eta husteko eskatu. Bi bide har genitzakeen. Bata, maximalista: giza eskubideen markoan koka genezakeen, eta gune hori baliatzeko eskubidea aldarrikatu. Bigarren bidea erabili genuen, ordea. Frogatu genuen salaketa horretan soilik kolektibo bat salatu zutela, eta Patio Maravillas espazioan 21 elkartek zeudela, beraz, elkartek bakarrik utzi beharko zuela tokia. Epaiketa galdu zuen Patio Maravillas elkarteak, baina, ezin zituzten gainerakoak kanporatu.

Hibai Arbide Aza

1979, Barakaldo

Zuzenbidea ikasi zuen, eta abokatu jardun, bederatzire urtez, Bartzelonan. Okupazioarekin eta migrazioarekin lotutako kasuetan lan egin du, batik bat. Gaur egun, Atenasen bizi da, eta bertako egoeraren berri ematen dihardu, buru-belarri. Besteak beste, Venezuelako Tele Sur katean eta Twitterren (@hibai_) jarrai dezakezue.

Askos ederragoa zatekeen espazioan egoteko eskubidea aitortu izana, baina estrategia horrekin espazioa galduko genuen, eta aldiz, bestea baliagarriagoa zen espazioaren helburu politikoak jorratzen jarraitzeko. Dena den, handik urte batzuetara galdu zen espazioa. Garraipen horiek behin-behinekoak izan ohi dira.

Zer ikasi duzu abokatu jardunda?

Epaiketetan inork ez duela egia esaten. Egia konplexuegia da, ezin da epaiketa batean osoki sartu, ñabardura gehiegi daude, eta moldatu egin behar dira, azken bertsioa eraikitzeko. Ondo lantutako bertsio bat beti da egia baino sinesgarriagoa. Horrek ez du esan nahi alderdi inportanteetan gezurra esaten denik beti, baina errealtatea azaltzeko kode bat da zuzenbidea, eta zentzu horretan, arbitrarioa da.

Zuzenbideak ez du esaten zer egin dezakezun eta zer ez, aitzitik, ezartzen du zer ondorio pairatuko duzun baldin eta legeak onartzen ez duen zerbait egiten baduzu. Bestalde, zuzenbidea beti aplikatzen da momentu jakin bateko indar-korrelazioaren arabera.

Sarri galdetzen dizute ea zerbait legezkoa den, eta ea egin daitekeen. Bada, ez da gauza bera. Zenbait pertsonak gauza ilegalak egin ditzake, eta ondorio-rik pairatu ez, eta beste batzuek, aldiz, "errugabeak" izanda, legearen zama jasane behar izaten dute.

Bartzelonan egin duzu lan. Nola eta zertan igarri duzu hiriaren aldaketa zure jardunean?

Administrazio-zuzenbideak gero eta indar handiagoa hartu du errepresio-estrategien barruan. Hainbat urtez, zigor-zuzenbidea baliatzen zuen botereak, arriskutsutzat jotzen zituen jarrerak zigortzeko. Azken urteotan, ordea, hainbat lege ateratu dituzte, hala nola zibismoaren ordenantza eta Mozal Legea. Isunak ezarri dituzte, eta eremu horretan ez daukazu epaiketetako bermerik. Zigor-zuzenbideari kritika asko egin dakizkioke; hala ere, gutxienez, defentsa-eskubidea bermatzen da. Administrazio-zuzenbidean, berriz, Bartzelonako Guardia Urbanako agente batek esaten badu zuk delitu bat egin duzula, zuk zeuk frogatu behar duzu hori ez dela egia.

Administrazio-zuzenbidearen bidez ezabatu dituzte zenbait talde espazio

publikotik, eta ez hori bakarrik, mekanismo hori berori barra-barra erabili dute auzoak gentrifikatzeke, beste hainbat estrategiarekin batera, jakina, hala-ko gentrifikazio-prozesu bat ezin baita tresna bakar baten bitartez egin.

Edonola den, zuzenbidea utzi zenuen, Bartzelonatik alde egin, eta kazetari lane-tan hasi, Grezian.

Beti izan dut gustuko idaztea, eta dagoneko ari nintzen, batean eta bestean. Eta jabetu nintzen, sarritan, gogo gehiago neukala auziaren berri emateko, auzia abokatu moduan jorratzeko baino. Ondoren, Greziara joan nintzen: ez nuen hizkuntza ezagutzen, ez neukan titulurik, eta maizago idazten hasi nintzen. Gainera, kazetaria izateko oso une interesgarria topatu nuen han: Syriza irabazi zituen hauteskundeak, erreferenduma egin zen, hirugarren memorandum... Hein batean erraza izan zen modu profesionalean lanean hastea, eta zorte handia izan dut.

Taxiak

"Atenasen merkeak dira taxiak, ez dute halako konnotazio handi-mandirik, eta gidarien espektro politikoa oso da askotarikoa. Itzelak dira kazetaritza egiteko. Gidariarekin hitz egin dezakezu, eta hura, aldi berean, bestelako jende askorekin mintzatu da".

2014an iritsi zinen hara. Zerekin egin zenuen topo?

Ordurako zertxobait ezagutzen nuen herrialdea. Nire kidea bertakoa da, eta azken urteetan behin baino gehiagotan joana nintzen. Krisiak guztiz jotako herrialdea aurkitu nuen: klase ertaina desagertuta, pobrezia-maila oso altuak... Hala ere, bestelako une bat zen, itxaropen garaia.

2015ean ez zuen gobernuak galdu, ezpada herriak. Jende askok bazekien zer gertatzen ari zen: gobernu bat Europa

neoliberalaren aurka, estreinako aldiz, gatazka instituzional irekian. Jende askok babesa eman zion Syrizarri, Syriza gustuko izan ez arren, uste baitzuten bestelako Europa bat pentsa zitekeela.

Eta orain...

Klima hori egon badago, nahiz eta apaldu egin den. Irakurketa simple bat egin ohi da, eta kaleko mobilizazioak jaitsi direla esan. Neurri batean halaxe da, baina, sakonean, mobilizatzeko modua eraldatu egin da, ez desagertu. Izuga-





“Iheslariet buruzko erreportaje bat egiten badut, iheslariet hitz egin behar dute, beti, ez soilik boluntarioet”

rria da zenbat greziar aritu diren buru-belarri errefuxiatuen alde lanean, eta ez soilik aktibistak. Nire auzoan, adibidez, emakume elkarte bat dago. Emakume edadetuak dira eta negu osoa eman dute iheslarietnako kapeluak egiten. Lesbosen hondartzetan egiten den lanak adina balio du jardun horrek, eta jende pila batek egin ditu halakoak, antolatu gabe, modu espontaneoan. Greziar asko oso egoera eskasean egon arren, arrazakeria ez da areagotu, Alemanian bezala.

Zer dela eta?

Batetik, iheslarietkin identifikatzen dira greziarrak: “Gu izorratu gaituen Europa horixe bera ari da iheslariak izorratzen”.

Bestetik, 1922an, Turkia eta Grezia gerran aritu ziren. Greziak galdu zuen, eta greziar askok gaur egun Turkia den hori utzi behar izan zuten, eta gaur egun Grezia den horretara joan. Oraingo iheslarietn bide berberak ibili zituzten, Ismirretik Lesbosera. Errefuxiatuetn ondorengoak dira Lesbosen biztanleetn erdiak, eta ez da Euskal Herrian bezala:

kontua ez da zure aitona-amonak Argentinara joan zirela, baizik eta zure gurasoak etorri zirela hona, eta horretn fruitua zarela zu zeu.

Greziako eskuinak esan du ez dela egoera bera, orduko hartan greziarrak ari baitziren Greziara itzultzen. Guk, berri, elkarriketa egin diogu garai hartan etorritako andre bati, 82 urtekoa, eta irakurketa hori gezurtatu du: baztertu egin zituzten, pobreak zirelako, eta turkiar ere esaten zieten, iraintze aldera.

Kazetari moduan, nola kokatzen duzu zeure burua?

Iruditzen zait objektibotasuna ez dela existitzen, eta zintzoagoa dela adieraztea nondik idazten duen bakoitzak. Horrek ez du esan nahi erreportajeak propaganda izan behar duenik, niri ez zaizkit halako lanak gustatzen, edukiarekin ados egonda ere. Baina joera ideologikoak beti daude hor: ezin dira eragotzi, mundu guztiak ditu, eta beraz, hobe da aitortzea nondik ari zaren.

Adibiderik?

Iheslari buruzko erreportaje bat egin badut, iheslariak hitz egin behar dute, beti, ez soilik boluntarioek. Hori posizio politikoa da, eta ez da panfletarioa, inondik ere.

Zentzu horretan, oso deserosoak egin zaizkit konparazio hidraulikoak; iheslari-olatuak, iheslari-korronteak... Badirudi ontzi komunikatuez ari garela: hemen muga ixten duzu eta iheslariak beste nonbait agertzen dira, automatikoki. Jakina, gerrarik ez balego, gauzak ez lirakeke hala gertatuko, baina iheslariak ez dira gerraren ondorio huts bat, erabaki batzuk hartu dituztelako etorri dira, beren bizitzan eta erabakien subjektu dira.

Feminismoari ere erreparatzen diozu.

Niretzat garrantzitsua da, gai bat izateaz gain, feminismoak zeharka dezala nire idazketa, beti baldintza nazala, iheslarietz ari ala lan prekarioaz. Zeharkako ardatza izan dadila. Beraz, kontua ez da iheslari emakumeei buruzko erreportajeak egitea etengabe, baizik eta aditzea ea zer dioten nire kide feministek nik lantzen ditudan gaiei buruz eta haiek egiten dizkidaten kritikak onartzea.

Hori guztia esanda, argi utzi nahi dut gure lanak ez direla akatsik gabeak. Egin ditudan erreportajeak begiratzen hasiz gero, autokritika handia egingo nuke, seguru, eta espero dut ikasten jarraitzea, baina ez badiozu zure buruari helbururik ezartzen, ez zara hurbilduko.

Behin baino gehiagotan esan duzu Europaren laborategia dela Grezia.

Bai. Austeritatearen eta neoliberalismoaren laborategia da, izan ere, Gre-

Bokazioa

“Beranduxe aurkitu dut kazetari bokazioa, 35 urte ingururekin. Hala ere, uste dut ondo etorri zaidala aurreko esperientzia, abokatu lana, kazetaritza egiteko oso lagungarria baita bestelako gauzetan ere ibili izana. Gainera, orain, adin honetan, seguru dakit haxe egin nahi dudala”.

Baliabideak

“Gauza mordoa daude kontatzeko, baina komunikabideek ez dute horiek kontatzeko baliabide materialik eskaintzen, eta erabaki politikoa da hori ere. Kazetari batek ezin du Idomenin hilabete bat eman, kotxea alokatu eta abar, erreportaje baten truke 50 euro ordaintzen badizkiote”.

ziaren zorra ez da kontabilitate-mekanismoa, alegia, gakoa ez da zenbat diru daukan herrialde batek, eta zenbat zor duen. Ez, diziplina-mekanismoa da zorra. Hartzekodunek ez dute nahi zorra kitatzea, baizik eta, zorraren bidez, gobernu batek egin ditzakeen politikak baldintzatzea.

Adibide bat jarriko dut. 2015eko negoziazioetan, Varoufakisek eskaini zuen Greziako Banku Zentraleko zuzendarien soldata jaistea %60, eta troikak ezezkoa eman zion. Aldiz, administrazioako soldata murriztea galdatu zieten. Irizpide politikoak dira horiek, argi eta garbi.

Greziaren bidez erakutsi nahi dute, batik bat, ezin dela bestelako politikarik ezarri. Gero, Greziako aurrekaria balia dezakete, eta Europako beste herrialdeetan gauza bera egin.

Aurrera begira, nola ikusten duzu egoera?

Greziako bi egoerek, hala krisi ekonomikoak nola iheslarien auziak, luzera joko dute.

Eta horren aurrean...?

Hasteko eta behin, kritika eta mugimendu politikoa behar ditugu. Elkartasuna oso garrantzitsua da, noski. Ez nuke halako irakurketa ezkertiar dogmatiko bat egin nahi eta elkartasuna karitate hutsaltzat jo. Elkartasun horri esker, zertxobait arindu dira milioika pertsonaren bizi-baldintza izugarri gogorak. Pertsona bakar baten bizi-baldintzak hobetzen badituzu, hori bada zerbait, beti. Baina hori ez da aski, eta mugak irekitzeko eskatu behar dugu, politikoki: ez da karitatea, eskakizun demokratikoa baizik. Eskubide demokratikoa da pertsona oro mugitu ahal izatea. ■

SOINUEDER
Kooperatiba



© 944 558 347
soinueder@euskalnet.net
www.soinueder.com

Zure jendea, zure
hedabidea, zure iragarkia:
**JARRI PUBLIZITATEA
HEMEN**



ARGIA

943 371545 | publiz@argia.eus | www.argia.eus/tarifak

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Youtuber



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Nire nebak 13 urte ditu. Feminismoari buruz berarekin hitz egitea erronka izaten da beti.

– “Feminismoaren inguruko galdera bat egin ahal dizut?”.

– “Bota”, erantzun diot, galdera zaila izango den intuizioaz.

– “Nortzuk dira feminaziak?”.

Ai ama. Jakin banekien. Nerabeek “feminazi” iraina ahoan daukate.

– Matxistek “feminazi” hitza hedatu dute, gu feministok erasotzeko. Zuk badakizu nazismoak juduen, homosexualen, ijitoen, komunisten eta abarren hilketak burutu zituela, ezta? Bidezkoa iruditzen al zaizu indarkeriaren kontra egiten dugunok naziekin alderatzeko moda hori?

– Ez! Baina joan den astean youtuber baten aurkezpen batean feminista batzuk agertu ziren, matxista zela oihukatuz. Victoriari –bere lagun minetako bat– asko gustatzen zaio youtuber hori eta neska horiek feminaziak direla esan du.

– Beno, nahi baduzu youtuber horren bideoak elkarrekin ikus ditzakegu eta nire iritzia emango dizut.

Dallas Review deitzen da eta ia bi milioi harpidedun ditu bere Youtube kanalean. *Pikaran* artikulua bat argitaratu genuen, bere diskurtso misogino eta antifeminista agerian utziz. Youtuber ospetsuenak mutilak dira eta zuzentasun politikoaren kontra egiten duten aitzakiaz, aurreiritzi matxista eta arrazistak hedatzen dituzte, besteak beste.

Kezkatuta geratu naiz. Tentuz ibili beharko genuke feministok. Youtuber ospetsuenek milioika –bai, hala da, milioika!– jarraitzaile dituzte, gehienak nerabeak. Victoriak seguru asko feministekin izan duen lehen kontaktua bere youtuber minenaren kontra egin dutelako izan da. Ondorioz, feministak gorroto ditu. Sare sozialak eta sexismoaren inguruko tailer batean,

Kezkatuta geratu naiz. Tentuz ibili beharko genuke feministok. Youtuber ospetsuenek milioika –bai, hala da, milioika!– jarraitzaile dituzte, gehienak nerabeak. Victoriak seguru asko feministekin izan duen lehen kontaktua bere youtuber minenaren kontra egin dutelako izan da. Ondorioz, feministak gorroto ditu

20 urteko neska batek esan zidan gogaituta zegoela, bere herrian gustuko duen youtuber bat –uste dut Wismichu zela– gonbidatu omen zuen udalak eta feministen presioa dela eta, azkenean ekitaldi hori bertan behera utzi zutela.

Boikot eta *escrache* feministak egiteko grina ulertzen dut, baina youtuber horien ospea kontuan edukita, ez al da kalterako izango? Zenbat neska ari dira feministekin haserretzen, miresten dituzten komunikatzaileen kontra –gustuko ala ez, komunikatzaileak baitira– egiten dugulako? Baina bestetik, argi dago, zer edo zer egin behar dugu emakumeak putak direla edota indarkeria matxistaren salaketak faltsuak direla esaten duten youtuber horiekin. Nire nebak AuronPlay miresten du –hiru milioi eta erdi harpidedun– dibertigarria omen delako, baina bere umorea, doinu ozpinen bitartez, besteei iseka egitea da.

Orduan, zein da irtenbidea? Debe-kuak eta boikotak baino, nik beti nahia-go dut kultura produktu arrakastatsuen kontsumo kritikoa sustatzea eta alternatibak ikustaraztea. Berdintasunaren aldeko gazte ekimenetan, ondo legoke youtuberren diskurtsoen eta jarreraren inguruko hausnarketak gidatzea. Baina errespetuz betiere, youtuberek gazteekin konektatzen dutenez jarrera defentsiboa hartuko baitute tontolapiko hutsak direla esaten badugu.

Bestetik, youtuber feminista eta LGTB ugari daude: Queer Avengers edota RayNTG, esaterako. Psicowoman, 31 urteko psikologo bat, youtuber bilakatu da nerabeei sexualitatearen inguruko mezuak helarazteko helburuz. Baina aitortu beharra daukagu youtuber feminista horien eragina ez dela inoiz ere hain handia izango –milaka harpidedun dituzte, ez milioika– arrakasta eredu hegemonikoekin apurtzen dutelako hain zuzen ere.

Orduan, zer egin? ■

Ontzi gobernantza

Ikasturte bukaerak maiz adierazten du prestakuntza saioetara joatea, hartzaile umil, behingoz begiak zabalik egoteko beha besteen iradokipenei, edo gure ikasleak bezain indiziplinatuak agertzeko. Nola gerta.

Aurten *Vent debout* elkartearekin ikasteko parada ukan dut. Hastapenetik kuriositate puntu batekin joan naiz: berehala elkartearen izena gertatu zait deigarria. Nengoen, “haizean zutik, haize zuta” zer deabru zitekeen eta zirrimarratu lehen irudia *Titanic* filmea izan zen eta bigarrena nihauren buaruarena enbata altxatu arau Hendaiaiko itsasbazerrean zut tematzen.

Prefosta, zer dakit nik itsasoko gauzez! Barnealdekoa naiz! Istripuz izan ez balitz, itsasoa ez nukeen ikusia hogeitaz gabe! Ontzi gobernantzan, frantsezko *vent debout* da ibilera bat, haizea kontra denekoa. Hortik goiti argiago ukan nuen ikastaroaren izenburu ulergaitza. “Vent Debout, ibilmolde popular eta demokratikoa”, ulerturik parada zitekeela nork bere barkua nola zuzendu ikastea, noiz eta sustut haizea kontra denean eta ekipaia handia. Haizeen kontra joaten tematuz gero, aitzina egin ez, eta gibelera egiten baita, irakatsiko ziguten beraz nola egin, balekibale, aitzina egiteko molde bat atzemateko.


Kostaldekoek badakikezue hori, nabigatzaileek badituztela beste ibilera batzuk, ahalik eta molde eraginkorrenean joateko, erran nahi baitu, abiadurara onean baina ontzia uzkaileteko edo sobera inarrosteko arriskurik gabe ere, etengabe bilatuz haizearen norabidea-rekin angulunik egokiena, ez sobera saihetsetik, ez sobera gibeletik, belak behar den heinean zabalduz, eta horrela dabilatzala, zeharka, sigi-saga, uhinek eta oldarrek bultzaturik, batean ezker, bestean eskuin, helmugarantz pixkanaka, aitzina eta bat beti, denbora hartuz eta indarrak neurtuz, ahalik eta laste-



Bea Salaberri

EUSKARA IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

rreren ez, seguruen baizik ez joateko.

Hori izan da hain zuzen, eskaini dizkiguten formakuntza egun horiez gogoan atxiki dudana. Orogen buru, helburua argi eta bidea batera egin nahi duen taldeak, ibilmolde popular, demokratikoa goa nahi duenak, boterearen banaketa eta parte-hartzea bultzatu nahi duenak, jai daukala baina eskura dituela hainbat teknika, marinelek nola.

Horien artean, bada bat interesgarria, konferentzia keinukatua deitua, gauzak teorizatu gabe, esperientzien kontaketatik ondorioztaraztea dute helburutzat hitzaldi hauek, bizipena (zentzu guzietan) hitzen bidez plazaraziz. Terminologia astuna eta eskema korapilatsuak baztertuz, azalpen desdramatizatua da, zeinetan gauzak desteorizatzen ikasten den, hizlaria desakralizatuz baita segurtatuz jakintza denen eskura ezartzen dela, ez dela elite baten altxorra. Hots, desteorizatzen birbanatzea planteatzen eta lantzen da etengabe, denen artean helburu berera heltzeko baina bortxan haizearen kontra egin ordez, pausoak egokituz eta bidea partekatuz kideekin.

Oroz gainetik preziagarriena izan da oinarritzakoa duten kontzeptua aplikatzea: hitza askatzea, zernahi aipatzea baina denek hitz egitea. Besteek entzutea iraultza dela entzun diot norbaiti; isiltzea bada iraultzailea baita, besteen aditzeko sustut.

Parte-hartze eta partekatze mota horrekin, agian ez goaz zuzen helmugara gaitzeko erritmoan, zeharbide eta negoziazioak badira: bizkitartean paregabea da sentitzen ahal den proiektuen aitzinamenduan, baita maila pertsonaleko aberastearenean ere. Hala sentitu naiz behintzat.

Isiltzea, entzutea, eskua uztea, konpartitzea, berdintasuna, norbanakoaren garapena. Maite dut ekaina, ikastaroak egiteko sasoia, soluzioen garaia, hobeak bihurtzen saiatzekoa. ■

Etsipenik ez, ekimena bai



Zigor Etxeburua
Urbizu

EUSKALGINTZAKO KIDEA
@ZEtxeburua

Belaunaldi berriei paso emateko garaia da, ez haietaz paso egitekoa. Erretiratzeko garaia da, etorkizuneko politikak erabakitzeari dagokionez, behintzat. Hirurogeiak pasata dituzten politikari ugari dago agintean, beren ikuspegiak ezartzen ari dena zukada urte horren erdia ere ez duen gazte jendeari, euskaraz hezi den eta euskaraz bizi nahi duen jende gazteari.

Eta hemendik aurrera zer? dokumentuan 30 urterako politikaren ildoak ezarri dituzte Eusko Jaurlaritzako politikariak, zeintzuek eta hiru hamarkada horiek jubileuan eta zahartzaroan pasako dituztenek, zeini eta hiru hamarkada horiek beren heldu aroko eta laneko bizitza ia osorik hartuko dizkietenei. Zilegia da zaharrak ezartzea gazteari nolako izango den bere bizitza? Esaten zaie, beren bizitzak ezingo dituztela bete-betean euskaraz eratu eta, gainera, 30 urte geroago ere euskararen arazo soziala konpondu gabe izango dela. Jaurlaritzako azkiek aurreikusten dute euskaraz ezin biziak haserrea eragingo duela, eta “insatisfakzio saihetsezin” hori kudeatzen ikasteko gomendioa egiten dute. Beste modu batez ere aipatu da etsipenerako dei hori, euskaraz bizitzeko “ametsa doitzera” gonbit eginez euskaltzaleoi. Euskarazko hedabideei publizitatea eta duintasuna, batera, erdira doitzeko Gipuzkoako diputazioak hartu duen erabakiaz ariko ziren? Sanoki onartu behar

dugu Osakidetzak euskaldunoi errezetatzen digun bazterkeria? Medikuntza euskaraz ikasi ezina depresiorako tratamenduaz ezkutatuko dugu? Gure gurasoek jarrera hori izan balute, ez genuke ez ikastolarik, ez euskalgintzarik ez eta gutxi barru politikari horiek gozatuko duten erretirorik izango ere.

Jaurlaritzaren hitzetan, 30 urteko politikak ez omen ditu esperotako emaitzak lortu hainbat arlotan, bereziki hizkuntza eskubideen berme praktikoari dagokionez. Hala ere, gure herrian gure hizkuntzan normaltasunez ezin biziari ez erreparatzeko eta lortutakoari begiratzeko eskatzen digute. Jakina begiratuko diogula, herria izan baita lorpen horien protagonista! Baina txantxangorriaren kantuak ere ezin du estali gizarte erdalduna eskaintzen zaiena, erremediorik gabe, hezkuntza osoa euskaraz egin eta heldu arora iritsi diren herritar euskaldunei.

Gazteentzat zaharra da EAEn agintzen duen politika, kanpoeder agertu arren. Gure agintariak determinismoak eta etsiak jota daude, nekatuta. Elefantea ikusi omen dute, baina elefantearen metafora okerra hartu dute, elefantearen azkenaren egokiagoa zaie. Euskaraz biziko den gizarte egiteko determinazioa, alaitasuna, elkartasuna eta parte-hartzea behar dira. Horiek gaztetasunaren ezaugarriak dira, berrietasunarena, ez zaharrena. ■

Baimena



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Guraso izateko legezko baimenik ez dela behar kontu aski ezaguna da; hots, guraso bihurtzea (ia) edonoren esku dagoela, familiadun geroaz bermerik egiaztatu beharrik gabe. Alde horretatik, konparazio jakin bat egiten ohi da: autoak gidatzeko baimena ezinbestekoa den bezala, antzeko azterketaren bat eskatu beharko litzaiekeela gurasogaiei euren gaitasuna/egokitasuna frogatzeko. Inguruan arestiko hizpidea atera denean, zure belarrien estalduraren arabera, ez duzu inor ikusi benetan proposamenaren alde. Komentario (ustez) irrigarriaren mailan gelditzen da beti, lagunarteko beste gai batera pasatu aurretik.

Aspaldiko laguna duzun Maitek deitu zizun lehengoan berria emateko: Alfredorekin zuen harremanak bereak egin ditu, hemeretzi urteko egonkortasun epelaren ondoren.

Gaztaroaren hasieran ezagutu zuen mutilaz gaizki esaka aritu gabe, dagoeneko ondorio argi bat ateratu omen du aferatik: autoak gidatzeko baimena ezinbestekoa den bezala, antzeko azterketaren bat eskatu beharko litzaieke bikote-kidegaiei euren gaitasuna/egokitasuna frogatzeko.

Kalean zehar dabilzan oinezkoek ondorio lagarriaren bat pairatu baino lehen. ■

Borrokan su eta ke lan legea kendu arte!

Pasa den martxoan hasi zen, modu atipikoan: internet bidezko izenpetze bilketa eta sare sozialetan deialdi bat. Hiru hilabete berantago El Khomri izeneko lan legearen kontrako mugimenduak irauten du. Zergatik? Hemarkadetako borrokan ondorioz langileria babesteko sortu zen lan kodearen kontrako eraso latza da lege proiektua. Arauen hierarkia hankaz gora ezartzen du, erran nahi baitu, orain arte enpresa edo sektore mailan adosturiko hitzarmenek legean finkaturiko minimoen gainetik izan behar zutela.

Lege berriarekin, negoziaketako gune nagusia enpresa bilakatzen da eta hitzarmenek ez lukete ezertan errespetatu beharko sektoreak edo legeak finkaturikoa, beheranzko konkurrentzia bizia sortuz. Lege proiektu hori haserre soziala piztu zuten beste hainbat gertakarien ondotik dator. 2012an finantza mundua borrokatuko zuela hitz eman ondoren, François Hollandek, presidente bihurturik, lerroz lerro segitu du agenda neoliberalak. Bankuen aktibitateak mugatu ordeztu babesteko legea, nagusientzako opari fiskal handiak, 2013ko erretreta erreforma, urgentsia egoeraren jarraipena, Notre Dame des Landeseko proiektua (Naoned; Loirako herria), immigranteekiko tratamendua...



Jakes Bortairu

AB-KO KIDEA

Astez aste, borroka mota desberdinek uztartu eta elkar elikatu dute, koktel harrigarri bezain emankorra sortuz

Legea prestatzerakoan kontzertatzerik ez, eta Frantziako Asanblada Nazionelean eztabaida saihesteko Konstituzioaren 49. 3. artikulua –arma famatua– darabilte. V. Errepublika sortu denetik sekula ez da sinesgarritasun hain apala duen gobernamendurik izan.

Astez aste, borroka mota desberdinek uztartu eta elkar elikatu dute, koktel harrigarri bezain emankorra sortuz: ikastetxe eta unibertsitate batzuetako

ko mobilizazioekin hasi, *Gaua Zutik* izeneko mugidarekin segitu, ekonomia-ren blokatze ekintza ugari eta sektore estrategiko batzuen greba mugagabeak, asteroko mobilizazio egunak tarteko. Denbora guztian poliziaren jokamoldea bortitza izan da, hamarnaka zauritu eraginez. Parean, frantses hiri nagusietan poliziari aurre egiteko ehunka jende antolatu eta prestatu da.

Aurreko mugimendu sozialetan, 1995, 2006 edo 2010ean eskuina zen boterean eta ezkerreko oposizioak mugimendua sustengatzen zuen. Balizko alternantzia politikoak hobetze bat ekar dezakeen ustea bazen. Aldi honetan sozialistak ditugu gobernamenduan politika neoliberalaren katixima aplikatzen, Europa osoan bezala.

Datorren urteko hauteskundeetan indarrean itzultzeko aukera handiak dituen eskuina, gai sozial eta ekonomikoaren erradikalizatzeko prozesu batean sartua da, bere programaren parte handi bat aplikatua ikusirik. Legearen kontra den gehiengo sozialak badaki bizkarra paretaren kontra borrokatzen duela: legea indarrean sartuz gero, mugimendua galduz gero, oraino zailago izanen da sozialistek ireki eta eskuinak segituko duen lan munduaren kontrako erasoei buru egitea. ■

gure artean euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldi da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus



Perretxiko zaindaria



Atsegin duzu perretxiko bila joatea?

Horrela bada, jolas honen bidez perretxiko biltzaile arduratsua eta bikaina bihurtuko zara

- Perretxikoak ezagutu
- Ingurunea zaindu
- Perretxiko-bilatzaile ona izan.

Basora joan eta aukeratu zure ibilbidea eta helburua.

Hiru helburu, hiru jolas, taula berean.

Perretxikoak bildu ahal izateko galdera bati erantzun beharko diozu. Hiru erantzun posible izango dituzu!

Orain prezio
berezia!

15€



+8



2-4



20-40 min.

Eskærak:

☎ 943 37 15 45

denda@argia.eus · www.argia.eus/denda

Industrialdea, 15 - 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

 ARGIA

Aberatsak eroso, pobreak lupapean

Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzarik (DBL) ezingo da gehiago eskatu uztailaren 1etik aurrera Gipuzkoan –seme-alabak dituztenen kasuan, abenduaren 31ra arte luzatuko da epea–. Diputazioak dio prestazio ekonomiko honek ez duela gizarteratzeko balio eta kendu egin du, baina bizirauteko gutxieneko errenta bat eta politika integratzaileak elkarren osagarri direla uste dute arloko eragileek, batak ez duela bestea oztopatzen, alderantziz baizik. Garbi du Caritasek: “Ematen ez direnak dira laguntzen ez duten laguntzak”.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Eztabaidan murgildu aurretik, jar ditza-gun datuak mahai gainean: 1.371 fami-liek jasotzen dute laguntza hau Gipuzkoan; familia horien euskarri izateaz gain, 500 bat enplegu sostengatzen ditu –gertuko kontsumoa areagotzeko pizgarri delako–; eta Diputazioak 11 bat milioi euro bideratzen ditu prestazio honetara, hau da, 813 milioiko aurrekontua duela kontuan hartuta, aurrekontuaren %1,4 baino gutxiago. Hori guztia, pobrezia eta bazterketa egoera gero eta handiagoa denean: 2012tik 2014ra pobreak %50 egin du gora EAEn; egun, biztanleen %20tik gora bizi da txirotasun eta bazterkeria arriskuan.

EAeko Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta murrizteagatik hasi zen dena

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) dugu EAEn, politikariek hainbes-tetan famaturikoa, babes sozialerako eta pobrezia arintzeko erreminta eraginkorra dela baitiote datuek. Bada, 2011n Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen DBE jasotzeko baldintzak zorroztea –urtebeteko erroldatzea eskatzetik, EAEn gutxienez hiru urtez erroldatuta egon behar izatera pasa zuten eskaera– eta errentaren diru kopurua %7 murriztu zuten. Murrizketa horiei emandako erantzuna

izan zen Gipuzkoako diru-laguntza, Al-
dundian EH-Bilduk gobernatzen zue-
nean: 1 eta 3 urte arteko tarte horre-
tan babesgabe geratu zirenei estaldura
emateko alternatiba izan zen –alegia,
urtebeteko erroldatzea eskatzen zen
Gipuzkoan prestazioa jaso ahal izateko,
eta ez hiru urtekoa–.

Onena zer den argi dute eragile sozia-
lek: DBE gutxienez lehengora itzultzea,
EAeko herritar guztiek eskubide eta ba-
bes egokiak izan ditzaten, baina 2011tik
halakorik egin gabe jarraitzen du Eusko
Jaurlaritzak, eta orain Gipuzkoan zuten
adabakia ere ezabatu du Aldundiak. Era-
bakiaren aurka agertu dira sindikatuak,
aurka mintzatu da Gipuzkoako Langile

» Baldintza onenak
zituen diru-laguntza
eskaintzetik,
EAeko beste lurraldeak
baino baldintza
okerragoak eskaintzera
igaroko da Gipuzkoa

Sozialen Elkargo Ofiziala, eta salaketa
gogorra egin dute Caritaseko hainbat
kideek, ekintza “oso larria” dela, “pena-
garria” iruditzen zaiela eta “konpromi-
so etikorik eza eta behartsuekiko justi-
ziarik eza” azpimarratuz: “Hor ikusten
da bazterkeriaren kulturari bizi garela”.
Gipuzkoako Afrikarren Batasuna elkar-
tean ere kritikoak dira: “Familia askoren
bizitzarekin ari dira jolasten”. Eta gehitu
digute, elkarbizitzarako eta gatazka so-
ziala saihesteko ere funtsezkoak dire-
la halako prestazioak: “Lapurtzera edo
gisako ekintzetara bultzatuko dituen
egoerak saihesten ditu oinarritzko diru-
sarrerak. Bizirauteko dirurik ez duenak
eta lanik lortzen ez duenak zer egingo du
ba, gosez hiltzen utziko du bere burua?”.

“Gipuzkoako Aldundiak dirua behar
du, aurrekontuak koadratu, eta pobreen
kontura egiten du, pobreek ez dutelako
bozkatzeko, aberatsek baino parte-har-
tze politiko txikiagoa daukatelako, eta
sarri euren egoera administratiboagatik
ezin dutelako euren burua defendatu”,
dio Ander Rodriguez Lejarzak. Bera da
prestazioa ezarri zuen Gizarte Politi-
kako sailburu ohia. Egungo sailburuari
ere, Maite Peñari, galdetu diogu lagun-
tza kentzeko arrazoiez, baina ez digu
erantzun; konfrontaziorik ez duela nahi



*Diru-sarrerak Bermatzeko
Laguntzarik ezingo da
gehiago eskatu uztailaren
1etik aurrera Gipuzkoan.*

argudiatu digute bere sailetik. Aurrera begira martxan jarriko duten politika sozialaz hitz egitea ere proposatu dugu, baina oraindik zehaztugabe dagoela adierazi digute. Laguntza ezabatzeko argudioak, dena den, agerraldi publikoan eman zituen. Goazen urratsez urrats.

Homogeneotasuna? Baldintza onenak izatetik, okerrenetara

Prestazio honek Gipuzkoa “irla” bilakatu duela eta laguntzak lurralde osoan “modu homogeneoan” eman behar direla adierazi du Peñak. Eredu bateratua litzateke onena, bai, baina esan bezala, EAEko DBEren baldintzak okertu egin zituzten, eta bere horretan jarraitzen dute. Horregatik, baldintzak gogortzearekin batera kanpoan geratu diren herritarrak berriz ere babes-sisteman sartzeko DBE hobetu behar dela aldarrikatu du Alfonso Lopez Martinezek, Pobrezia eta Giza Bazterkeriaren Aurkako Europar Sareko Euskadiko ordezkariak.

Bitartean, homogeneotasun horren izenean, paradoxa bitxia emango da: Bizkaian eta Araban, prestazio sozialek 2 urte eta erditik 3 urterako erroldatze tarte estaltzen dute, eta Gipuzkoan, diru-laguntza ezabatuta, estaldurarik gabe geratuko dira 3 urte baino gutxiago erroldatuta daramatenak –3 urtetik aurrera, DBE jaso dezakete–. Beraz, baldintza onenak zituen diru-laguntza eskaintzetik, EAEko beste lurraldeak baino baldintza okerragoak eskaintzera igaroko da Gipuzkoa.

Argudioari ez dio hanka ez bururik ikusten Rodriguezek: “Mendekotasun laguntzekin ere gauza bera egingo du Aldundiak? Izan ere, Bizkaian eta Araban aplikatzen ez diren irizpideak aplikatzen ditu Gipuzkoak; murriztu egingo ditu? Beste zerbitzu batzuetan ere estaldura hobea eskaintzen da Gipuzkoan, homogeneizatu egingo dute, txarrerako?”.

“Migrazio artifiziala”, mezu arriskutsu bezain tranpatia

Gipuzkoako laguntza honek “migrazio isuri artifiziala” eragin duela ere arrazoitu du Peñak, “erakartze efektua” aipatuz. Migrazioak gora egin baino, ordea, jatorri atzerritarra duten baina dagoeneko bertan bizi ziren hainbatek aukera –eskubidea– baliatu du, urtebeteko erroldatzea nahikoa zelako. Egun, Espainiako Estatutik kanpoko nazionalitatea dutenak %6,5 dira Gipuzkoan,

» **ALFONSO LOPEZ MARTINEZ:**
“Fiskalitate juxtuago eta progresiboagoa behar dugu, aberastasuna birbanatzeko era orekatuagoa. Garapen ekonomikorik ez dago garapen sozialik gabe, hori frogatuta dago”

» **ANDER RODRIGUEZ LEJARZA:**
“Kanabera emateko, arraina lapurtu behar al diozu? Gizarteratzeko, lehenik duin bizitzea bermatu behar da”

» **ALFONSO LOPEZ MARTINEZ:**
“Ez du zentzurik hainbat politikari eta hedabidek sortutako kezka mailak; badirudi DBEren erruz herrialdeak hondoa joko duela, eta Jaurilaritzaren aurrekontuaren %4,5 baino ez da”

» **ANDER RODRIGUEZ LEJARZA:**
“Oinarrizko errenta unibertsalerantz egingo duen gizartea da bidea. Erresistentzia kutxa bat izatea bezalakoa litzateke, edozein enplegu edozein baldintzatan ez hartzeko baliabideak emango lituzkeena”

Araba eta Nafarroan baino gutxiago. Jakina, jendeak nahiago du lan eta bizi baldintza onenak eskaintzen dizkion gizartean, gizarte osasuntsuaren isla baita hori, herritar guztion eskubideak eta beharrak bermatzen dituen gizartearen isla. “Ez dugu ezer ulertzen –diote elkarre afrikarretik–, ahoa betetzen zaie, errefuxiatu siriarrak hartzeko prest daudela, baina gero bertan dauden etorkinak bota nahi dituzte?”. Caritaseko kideentzat, “askotan, gure solidaritatea itxura hutsa da”. Eta Rodriguez Lejarzarentzat, “krisiak gehien kolpatzen dituenak pobreak eta etorkinak dira, eta horiek berak zigortzen ari da krisiari erantzuteko sistema publikoa: bi bider dira biktima. Lehengo berdiner goaz: zergatik jarri dute kolektibo hau jomugan? Askok ez duelako bozkatzeko eskubiderik, eta badutenean, gutxiago direlako bozkatzera doazenak”.

Gizarteratzea, erronka handia

Oinarrizko laguntzak menpekotasun kronikoa sortzen duela gehitu du Peñak, eta ez diola herritarrari gizarteratzeko eta aurrera egiteko balio. Markel Olano ahaldun nagusiaren metafora berreskuratuz, “beharra duen pertsonari zer eman” erabaki behar da, “arraina ala kanabera, eta guk uste dugu hobe dela kanabera”. Bide horretan, Elkar-Ekin programa aurkeztu du Aldundiak: nagusiki, “bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako egoitzetan plaza gehiago eskainiko dira, eta lan munduan barneratzeko prestakuntza espezifikoa, hizkuntza ikastaroak eta enplegua eragin duen ekonomia sozial eta solidarioa bultzatuko da”, dio programak.

Haatik, harrituta dago Rodriguez Lejarza: “Kanabera emateko, arraina lapurtu behar al diozu? Proiektu autonomoak garatzeko, aurretik ez al da komeni jan ahal izatea? Gizarteratzeko, lehenik duin bizitzea bermatu behar da, eta guk geuk EH-Bildutik diru-laguntzarekin osagarriak liratekeen gizarteratze neurriak proposatu ditugu. Guztiz faltsua da laguntza eta gizarteratzea aurkari gisa planteatzea: bide paraleloak dira, kasuen arabera ez dutenak zertan batera joan, pobrezia egoeran dauden guztiek ez dutelako bazterkeria jasaten, bazterketak ez baitu zerikusia soilik diru-sarrerarekin, multidimentsionala da eta gizartean duzun parte-hartzearekin, lan merkatu-rako gaitasunekin... ere badu lotura”.



ELA SINDIKATUA

Hiru puntu nagusi hobetzeko beharra ikusten dute eragile sozialek: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta gutxienez lehengo baldintzetara bueltatzea, gizarteratzean eta gizarte zerbitzuen rolean indarra jartzea, eta oinarritzko errenta egungo lan merkatuaren logikatik ateratzea. Irudian, ELAk antolatutako Prekarietatearen Trena.

Sorospena bermatzea eta politika prebentiboak indartzea, hori da binomio egokia, Joseba Zalakain gizarte zientzietako adituaren hitzetan: “Politika birbanatzaileetan bakarrik ez, politika aurre-banatzaileetan ere indarra jarri beharko genuke: hezkuntza, lan merkata eta etxebizitza arloa egokitzea premiazkoa da, pobrezia gutxiago sortzeko”.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, eztabaidaren erdi-erdian

Lehenik, berriz ere, datuak. DBE 65.657 biztanlek jasotzen dute EAEn; jasotzen dutenen hirutik bik Espainiako Estatu-ko herritartasuna dute eta erdia baino gehiago emakumeak dira. Eusko Jaur-laritzaren aurrekontuaren %4,5 inguru bideratzen da errenta honetara eta herritar horiei gutxienezko diru-sarrera bermatzeaz gain, kalkulatu da 26.000 lanpostu inguru mantentzeko ere balio duela. Aurrerago aztertuko dugun bezala, datuek erakusten dute baita ere enplegua izateak ez duela bermatzen txirotasun egoeratik ateratzea: iaiztik jaitasi egin da langabezia EAEn, eta errenta behar dutenen kopurua igo.

Egun, batzorde tekniko bat DBE aztertzen ari da eta haren inguruko ezta-

baida mahai gainean dago. Politikari bakan batzuen ildo demagogikotik urrun –Javier Marotok abiatu zuen sokari tiraka DBE jasotzeko baldintzak gogortu nahian jarraitzen du PPK, gutxienez bost urteko errolatzea eskatuz eta egoera irregularrean dauden migratzaileak kanpoan utzi behar direla aldarrikatuz–, hiru puntu nagusi hobetzeko beharra ikusten dute eragile sozialek: DBE gutxien-gutxienez lehengo baldintzetara bueltatzea, gizarteratzean eta gizarte zerbitzuen rolean indarra jartzea, eta oinarritzko errenta egungo lan merkatuaren logikatik ateratzea.

Lehenengo puntuari lotuta, errolda eskaera berriro urtebetera jaitasi eta diru-kopurua berriro %7 igotzeaz gain, bestelako aldaketen beharra ere aipatu digu Alfonso Lopez pobreziaren aurkako ekintzaileak: hala nola, seme-alaben araberako diru kopurua berrikustea –orain, bigarren seme-alabatik aurrera, berdin dio hiru, lau edo bost ume izan, diru kopurua berdina da– eta tramitazioa erraztea, prestazioa eskatzeko prozedura oso konplexua dela baitio. Gaur egun, errenta horretarako eskubidea duten herritarren %30 inguruk ez du jasotzen, eta arrazoi nagusiak dira desin-

formazioa eta prozedurak batzuenengan sortzen duen estigma eta umiliazioa. “Kalean eskean ikusten dugu jendea, baina zergatik daude eskatzen? Galdetu al diezu noizbait? Nik bai, eta erantzun didate administrazioan horma bat aurkitzen dutela, erraztasunak eman ordez aurrera egiteko oztopoak jartzen dizkietela. Eta jende horrek ez luke kanpoan eskean egon behar, lanean edo ikastaroren batean baizik, edo gizarteratzeko beste bide bat egiten... Gizarte laguntzaileak esku hartu beharko luke hor”, diote Gipuzkoako afrikarren elkartetik.

Bigarren puntura garamatza horrek: EAEn bi eskubide aitortzen zaizkio herritarri, diru-sarrera duinak izateko eta gizarteratzeko eskubideak, eta bigarren arlo hori ez da modu egokian betetzen. Urrats garrantzitsu bat litzateke gestio guztia Lanbiden kontzentratu ordez –eta kudeaketa administratibo hutsa izan ordez–, garai batean egiten zen moduan profil jakin bat duten kasuak, bazterkeria arriskuan daudenak esaterako, gizarte zerbitzuetara bueltatzea. “Azken finean, oinarritzko sorospena emateaz gain herritarren garapen komunitarioa ere bideratu behar da (inguruarekin eta ingurukoekin duen

harremana, sozialki duen rola, bere komunitatean duen zeregina...) –azaldu digu Lopezek–. Herritarrak inguruan integratzeko laguntza dira gizarte zerbitzuak, baina zerbitzu publikoetako ezezagun handiak dira. Ezagutarazi eta balioa eman beharko genieke”.

Eta enplegu bat izatea ezeren berme ez denean?

Hirugarren kezka bat azaleratu dute elkarrizketatuek: prestazio sozialak oso lotuta daude kontratupeko enpleguari; edo prestazioa jaso, edo kalitate gutxiko enplegu prekarioa da sarri alternatiba. Edozein lan mota edozein baldintzatan exijitu ahal zaio jendeari? Gero eta prekari-zatuago dagoen lan merkatuan, egungo eskemak pobreziatik ateratzeko balio ez duten enpleguak hartzera behartzen ditu herritarrak, diru-laguntzen menpeko ezin dutela izan argudiatuta. Gipuzkoan soldata %6 prekarizatu da 1.100 euro edo gutxiago irabazten dutenen artean; EAEn, pobrezia mailatik beherako soldata dute langileen %18k.

Imanol Zubero EHuko soziologoaren ustez, soldatapeko enplegutik bereizi behar da DBE: “Lan merkatu gero eta araugabe, ezegonkor eta prekarioagoak objektiboki ezinezko egiten du lotura hori. Porrotera kondenatzen du”. Beste modu batera esanda, bizitza osorako lan prekarioetara kondenatzen ditu batzuk. Gainera, lan merkatua antolatuta dagoen moduan, ez da gauza herritar guztiak barne hartzeko.

“Dirua egon badago –nabarmendu du Lopezek–, dirua sortu sortzen da, baina aberastasun hori banatzeko genuen moduak ez du funtzionatzen eta gero eta esku gutxiagotan kontzentratzen da. Fiskalitate juxtuago eta progresiboago bat beharko genuke, aberastasuna birbanatzeko era orekatuagoa. Europa iparraldean adibidez, sistema ekonomiko ona daukate, babes sozial sistema on bati lotuta: garapen ekonomikorik ez baitago garapen sozialik gabe, hori frogatuta dago”. Aldiz, fortuna handien gaineko zerga erreformatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, aberatsek gutxiago ordain dezaten.

Prestazio sozialak enplegutik bereizi eta herritar guztiek oinarritzko errenta bat izateko eskubidea eztabaidagai dute, besteak beste, Finlandia, Herbehereak, Alemania edota Suitzan.



“Zure arazoa da ondoan duzuna, zu baino pobreagoa dena; ez begiratu gora, behera baizik, hor duzu etsaia. Jendeari hori pentsaraztea da krisi garaian sistemak izan duen lorpenik handiena”, salatu du Rodriguez Lejarzak.

» Prestazio sozialak lotuta daude kontratupeko enpleguari; edo prestazioa jaso, edo kalitate gutxiko lan prekarioa da sarri alternatiba. EAEn, pobrezia mailatik beherako soldata dute langileen %18k

Norabidea hori dela uste du Rodriguez Lejarzak: “Soldatapeko enpleguaren zentralitatea gainditu eta oinarritzko errenta unibertsalerantz egingo duen gizartea da bidea. Zure bizi-proiektua garatzeko gutxieneko errenta bat bermatua izatea; eta zure bizi-proiektua izan daiteke denboraren zati bat soldatapeko enpleguari eskaintzea (bide batez, lanorduak gutxituz jende gehiagori aukera emateko), beste ordu batzuk (edo bizitzaren epe jakin bat) zaintzari, boluntariotzari... Erresistentzia kutxa bat izatea bezalakoa litzateke, ELA sindikatuak duen moduan, edozein enplegu edozein baldintzatan ez hartze-

ko baliabideak emango lituzkeena”. Lan merkatua berrikusteak ere lagunduko luke: 35 orduko lan-asteak eta 1.200 euroko gutxieneko soldata aldarrikatu ditu LABek. Behin-behineko kontratuak, halaber, eguneroko ogia dira.

Diskurtsoa lokaztea, elitearen garaipena

Krisiaz geroztik, interes jakinei erantzuten dieten mezuak ugaritu dira laguntza sozialen inguruan: gehiegi hazten ari direla –eskubidea duen orok jasoko duen arren prestazioa, eskubide subjektiboa baita–, iruzur asko dagoela –nahiz eta iruzurra %0,3koa den, Ogasunean egiten dena baino askoz txikiagoa–, etorkinak diru-laguntzetatik bizitzera datozela –bai migrazio datuek bai egiten duten ekarpen ekonomikoaren datuek gezurtatzen duten arren–. Eztabaida guztiz lokaztuta dagoela dio Lopezek: “Hasteko, ez du zentzurik hainbat politikari eta hedabidek sortutako kezka mailak; badirudi DBEren erruz herrialdeak hondoa joko duela, eta Jaurilaritzaren aurrekontuaren %4,5 baino ez da”. Zergatik jartzen da fokua diru-laguntzetan, eta ez aberatsak hain aberats mantentzen dituen zerga sisteman? Ustelkerian galdutako milioika euroetan? Komisio ilegalean? Azpiegitura handietan?...

“Pobreen arteko borroka nahi dute –gaineratu du Rodriguezek–, pobeak elkarren artean lehian jartzea. Zure arazoa da ondoan daukazuna eta zu baino pobreagoa dena; jendeari hori pentsaraztea da krisi garaian sistemak izan duen lorpenik handiena. Ez begiratu gora, arazoa ez dago goian, behera begiratu, hor duzu etsaia”.

Lopezek gogoratu duen moduan, ordea, pobrezia eta bazterketa ez dira horiek sufritzen dituzten pertsonen ezaugarriak, egiturazko arazoa baizik, hori guztia eragiten duten gizarteak eraikitzen ditugulako. “Halako egoarak pairatzen dituztenak ezin ditugu euren egoeraren errudun eta erantzule bihurtu”. Aporofobia edo pobreenganako beldur eta fobia zabaltzen ari den garaiotan, gomendioa egin digute Gipuzkoako afrikarren elkartetik: “Jaitsi eskaileratik eta begiratu ingurura, nola bizi den jendea, eta ez soilik etorkinak, goian bizi den jende askok ez dakielako behean zer dagoen ere. Ahaztu jana, edaria, aterpea... duzula, irudikatu hori, jarri bestearen azalean”. ■



Unidos Podemosek zerua du eskura, PPk lurreko gobernua

Ekainaren 26an hauteskunde orokorrak egingo dira Espainiako Estatuan. Trantsiziotik, lehenbiziz errepikatuko dira indar politikoek gobernua eratu ezin izanaren ondorioz. Podemos eta Izquierda Unida elkarrekin aurkeztuko dira, eta horrek egoera berri bat sortuko du, itxura guztien arabera.



Xabier Letona

@xletona

Jose Luis Rodríguez Zapatero Espainiako demokrazia garaiko gobernu lehen-dakaririk onena izan dela aipatu du kanpainan Pablo Iglesias. Edo, besteak beste, esan du baita ere “sozialdemokrazia berri bat” beharrezkoa dela. PSOEren ohiko boto kalan arrantzatze-ko makina bat keinu egin ditu Unidos Podemosek eta, inkestei kasu eginez bederen, ezin esan gaizki joan zaionik.

Apirilaren hasieran abenduko hauteskundeetatik gobernu berririk ez zela aterako argi ikusi zenean, alderdi bakoitzak beste hauteskunde orokor ba-

tzuetarako estrategia zehazteari ekin zion. Bigarren itzuli klasiko baten estiloa, logikoa zen pentsatzea ezker eta eskuineko erreferentzia bakarra indartuko zela. Eskuinean PP zen erreferentzia hori, ez bairik gabe; eta ezkerrean Podemos, besteak beste, ezkerreko hauteslegoaren zati handi batek PSOE ezkerrekoa baino zentrokoa jotzen duela. Edozein eratan, Podemos eta Izquierda Unida bat egin zutenean, ez zen zalantzarik geratzen, eta Unidos Podemos gelditu da erreferentzia nagusi bezala.

Azken bizpahiru asteetako inkesta den arabera, botoa erabakia duten lau hautesleetatik batek Unidos Podemos bozkatzeko du. PPri dagokionez zalantza gehiago dira, baina alderdi bozkatuena izateaz gain, abenduan Ciudadanosera joan zitzaizkion botoak berreskuratuko lituzke. Eta ia inkesta guztietan, Pablo Iglesias eta Alberto Garzónen koalizioak aurre hartuko dio atzera egingo duen PSOEri. Hala ere, inkestetan bada beste datu klabe bat, erabakigarria izango dena: boto eskubidea dutenen herenak bere botoa erabaki gabe du oraindik.

Zein Gobernu eratuko da?

Ezkerreko hegemoniaren bila, Unidos Podemos eta PSOEren arteko lehia oso gogorra izango da azken minutura arte. Lehenxeago aipatutako ezker-eskuin polarizatze horrek eraginda, halaber, Unidos Podemos eta PPren artean ere beste horrenbeste gertatuko zela irudikatu da, baina ez. PPren estrategian omen da ez borrokatzea gogor Unidos Podemosekin, horrek koalizioa indartzen duelako PSOEren kalterako.

Baina ez ote da PPren interesekoa urteetako bere aurkaria ahalik eta ahulen geratzea? Badirudi ezetz, Jose María Aznar PPko buruzagi ohiak ere horixe gomendatzen ei zuen master batean amaieran Madrilen, *La Vanguardiako* Enric Julianak gogorarazi duenez: “PP, PSOE eta Ciudadanosen arteko konstituzio itun handia eratzeko baldintzak sortzea aholkatu zuen Aznarrek, bi erre-zeta gomendatuz”. Bat, lotu, hurbildu, adostu, lagundu eta txertatzeko lagungarri izan daitezkeen baldintzak sortzen laguntzea; bi, aipatu akordioa laguntzeko beharrezkoak izan daitezkeen sakrifizio pertsonalak egitea. Hau da, Mariano Rajoyren burua eskatzen ari zela.

Azken finean, orain ere bizpahiru aukera nagusi daude Espainiako Gobernua eratzeko. PPrentzat erosoena Ciudadanosekin osatutakoa litzateke. Estiloa eta itxurakeriak baztertuta, oinarrizko edukietan ados dira, esaterako eredu ekonomikoa, Bruselarekiko lankidetzeta eta estatu egituraketa. PPK, alabaina, ez du baztertu gutxieneko gobernua eratzeko. Zer nahiko luke? PSOE eta Ciudadanos abstenitzea eta gero Legebiltzarrean ahal denarekin adostasunetara iristea.

Oraingoan ere botoek abenduko ataka estua ekartzen badute, ez da baztertzekoa aipatutakoa. PSOEn bertan ere bada antzerako ideiarik bota duenik: joan den astean, alderdi sozialistako gai ekonomikoen koordinatzaile Jordi Sevillak adierazi zuenez, berriz blokeorik egon ez dadin, nahiko izan beharko luke Diputatuen Kongresuan gehiengo lortzea. Ate horretatik PP eroso pasatuko litzateke gobernua eratzerako.

Sevillaren hitzak doinu onekoak dira PSOEko baroiak eta Felipe Gonzalezen belarrietan, baina ez Sanchezenetan. Alderdia bitan zatitua dago halako egoera baten aurrean: Unidos Podemosen aurretik gertatuz gero eta aukerarik balego, Sanchez eta beste asko prest leude-

ke haiekin gobernua eratzeko; PSOEko goardia zaharra ez.

Eta atakarik estuenean, hor legoke koalizio handiaren gobernu aukera, bankuek, Bruselak eta enpresarien elkarrekin gustukoena dutena: PP, PSOE eta Ciudadanos. Guztiz baztertuta dago Iglesias lehendakari lukeen gobernua, ezta PSOEek eta Unidos Podemosek horretarako indar aski balute ere.

» Azken bizpahiru asteko inkesta denen arabera, botoa erabakia duten lau hautesleetatik batek Unidos Podemos bozkatuko du

» PPren estrategian omen da ez borrokatzea gogor Unidos Podemosekin, horrek koalizioa indartzen duelako PSOEren kalterako

» Lehenbiziz Elkarrekin Ahal Duguk irabaz ditzake hauteskundeak Nafarroan, botoen %35,9rekin UPN-PPri gailenduz (%28,8)

Zorra... zer zor?

Edozein gobernu aterata ere, usoak belatzari nola egin beharko die aurre Bruselako atzaparrei. Aurten Espainiako gobernuak %5,1eko defizitarekin amaitu du, aurreikusitakoa baino puntu bat gehiago, horrek dirutan 10.000 milioi euro esan nahi du. Gaia hauteskundeetatik ateratzeko, 2.000 milioi isuna ere atzeratu dio Bruselak Espainiako Gobernuari, honek defizit helburua ez betetzearagatik. Krisiaren hiztegira jo eta

zenbaki horien esanahia argia da: murritzeta latzak. Nondik egingo diren aurreikustea ere ez da gaitza.

Hori baino egoera orokor zorrotzago ere izango du edozelako koloretako gobernuak, funtsean zorrari lotutakoa. Lehenbiziz mende oso batean, Espainiako Estatuaren zor publikoak bere BPGaren tamaina gainditu zuen iragan maiatzean; hau da, bilioi batek gorakoa da. 2007an Espainiaren zor publikoa %37koa zen, 384.000 milioi euro; 2012an PP gobernura iritsi zenean bazen 782.000 milioi eurokoa; eta 2016an 1,09 bilioi eurokoa. Aurten Estatuko administrazio publikoen kutxetatik 35.000 milioi euro aterako dira zorraren interesak ordaintzeko.

Baina nork entzun zuen zorra berba, adibidez, lau hautagai nagusien debatean? Ez han, ez kanpainan oro har, gaia ez da ia ukitu. Unidos Podemosek ere ateratzen ez duelako kexu da Eric Trousaint ekonomilari frantziarra: “Ezkerreko alderdietan ere, zorra zalantzan jartzea gai baztertu moduan jorratzen ari da eta horrek kezkatzen nau. Dirudie-nez, alderdiak saihesten ari dira gaiari buruz posizio bat hartzea”. Ekonomilariak argi dauka edozein gobernu ere jai duela politika aurrerakoia egiteko, zorroaren zati bat kitatu gabe. Urrutiago ere badoa: “Espainian aldaketa gobernu batek Europako Batzordea eta Europako Banku Zentrala desobeditu beharko litzuke eta haiei aurre egin (...) Aldaketarako programa sakon batekin, Grezia, Portugal eta Espainia eurotik atera beharko lirateke”.

Katalunia eta independentzia prozesua

Edozelako gobernuren beste patata berroetakoa hauteskunde ondorengo Katalunian izango da. Prozesu independentistak indarra galdu du eta horretan ados dira independentziaren bultzatzaile nagusiak ere. Generalitateko aurrekontuen inguruan Junts Pel Sí eta CUP akordioetara ez iristea izan da prozesuak jasotako azken kolpea. Espainiako Gobernu berriak Generalitateak bultzatutako Konstituzio prozesuari egin beharko lioke aurre 2017an, teoriarik urte horretan desegin beharko bailitzateke Generalitatea eta hauteskunde konstituziogile berriak deitu, baina ez dago batere garbi zer gertatuko den. Lehenik, aurrekontuen aferak ekarrita-

ko hausturaren ondoren, Carles Puigdemont presidentea irailerako iragarri duen konfiantza mozioa gainditu behar du. Gero ikusi beharko da zer gerta litekeen independentziari buruzko alde bakarrek erreferendumarekin: CUPEk hori nahi du, ERCK ez du gaizki ikusten, Puigdemontek dio aztertu behar dela eta CDCko sektorerik uzkurrenak entzun ere ez du nahi.

Adostutako erreferendumaren bila joango da Generalitatea Madrilerara, baina ez du doinu berririk entzungo Moncloa zaharrean; erreferendum adostuaren aldeko Unidos Podemosen oihartzunak Madrilgo kaleetan galduko dira. Independentistak haien bidean tematzen badira, Madrilekiko talka denbora kontua besterik ez da. En Comú Podemeren hauteskundeetako arrakastak dena desaktibatzen ez badu behinik-behin.

Elkarrekin Ahal Dugu nagusi

Iragan abenduan Ahal Dugu gailendu zitzaion bototan EAJri EAEn (316.441 / 301.585) eta bigarren indarra izan zen Nafarroan, UPNren atzetik (101.901 / 80.961). Oraingoan, inkesta denek EAEn lehen postua ematen diote Elkarrekin Ahal Duguri (EAD), bototan zein eserlekutan. Joeretan, EH Bilduk bere bi eserlekuei eutsiko lieke, PPK ere bai bere bakarrari eta PSOEk hirutik bat gal dezake, Arabakoa. Herritarrek desberdin bozkatzen dute autonomikoetan eta orokorretan, baina ezin da ahaztu datorren udazkenean Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izango direla eta orain joera batzuk bederen ikusiko direla.

Berrikuntza handiagoak aurreikusiten dira Nafarroan: Metroscopiaren arabera, lehenbiziz EADk irabaz ditzake hauteskundeak, botoen %35,9rekin UPN-PPri gailenduz (%28,8). UPNk ez du hauteskunderik galdu 1989tik. PSNren egungo eserlekua zalantzan legoke. Geroa Baik eta EH Bilduk ere, abenduan bezala, ez lukete ordezkartzarik. Hauteskunde desberdinak diren arren, berriz geldituko da nabarmen egungo foru gobernua sostengatzen duten bi indar nagusien ahuldadea. EH Bilduk eta Geroa Baik proposatu zuten aldaketaren lau alderdiak elkarrekin joatea, baina Ahal Duguk eta Ezkerrak uko egin zioten. EH Bilduk eta Geroa Baik baztertu egin zuten elkarrekin joatea. Bakoitzak bereari eutsi beharko dio orain. ■



Hauteskundeetan hirugarren postuan utziko balu, Unidos Podemosek oso ataka estuan jarriko luke PSOE: Rajoyri bide eman ala Iglesiasi? Bestetik, Metroscopiaren arabera, Elkarrekin Ahal Duguk botoen %35 lortuko luke Nafarroan, eta UPNk %28.

Emakumeen ikuspegitik

BAKOITZA BERE BAKEA ERAIKITZEN

Ez dira berdinak izan gatazka armatuak Guatemalan, El Salvadorren eta Euskal Herrian. Gatazkak bezala bakea eraikitzeke moldeak ere desberdinak dira. Ados da Morena Herrera feminista salvadortarra. Haren ustez, emakumeak ados diren gaitan aurrera egitea da gakoetako bat.



Ane Urkola Agirrezabala

@irrikaz

ARGAZKIA: I. URKIZU / TOLOSALDEKO ATARIA

Tolosako Bizikidetza Foroak eta Mugen Gainetik elkartek *Emakumeak bake eraikuntzan hemen eta munduan* mahai-ingurua antolatu zuen maiatzaren 23an. Gatazka armatuetan eta bake prozesuetan emakumeek izandako beharrak, emandako urratsak eta garrantutako proposamenak landu zituzten. Morena Herrera (El Salvadorreko *La colectiva feminista para el desarrollo* ko ordezkaria eta FMLNko kidea izana), Rosalina Tuyuc-ek (CONAVIGUA Guatemalako Alargunen Koordinadora Nazionaleko lehendakaria) eta Irantzu Mendiak (EHUko Soziologia eta Gizarte Langintzako irakaslea eta Hegoako ikerlaria) hartu zuten parte.

Irantzu Mendiak: "Ez hiltzen gaituen gerrarik, ezta zapaltzen gaituen bakerik ere"

"Emakumeen aurkako indarkeria ez da hasten gatazka armatuetan, indarkeria politikoetan, eta ezta amaitzen akordioak egiten direnean ere", adierazi zuen Mendiak. Gaur egun, emakumeen aurkako indarkeria politikoak jarraitzen du: "Intentsitatea, kokalekua eta indarkeriaren formak eta testuinguruak aldatu dira -krimenak, kartzela, atxiloketa-, baina emakumeen aurkako indarkeriak jarraitu egiten du. Euskal

Herriko egoera politiko berrian, bakeaz hitz egiten ari gara, elkarbizitzaz, baina gabezia demokratiko handiak daude: indarkeria ez da amaitu, emakumeak hiltzen dituzte".

Indarkeria armatuaren analisi feminista egitea garrantzitsutzat jo zuen: "Kontuan hartu behar da emakumeen aniztasuna: emakumeek borrokatu egin dute, giza eskubideen alde borrokatu dute edo rol tradizionalak bete dituzte, bizitzaren sostenguekin lotutakoak". Guatemala eta El Salvadorreko emakume borrokalariekin inguruan ari zen hizketan.

El Salvadorren talde feminista ez zegoen bake negoziatioetan

1990ean sinatu zituzten bake akordioak FMLNk eta Gobernuak. "Kontraesan handia sentitzen genuen. Alde batetik, poztu egin ginen ez genduelako gerrarik nahi, eta bestetik, akordio horiek ez zituzten barnebiltzen jendearen alderrikapen guztiak. Amets asko gauzatu gabe gelditu ziren", esan zuen Morena Herrera.

Bake akordioak "demokraziaren berfundazioarako" bide egokiak zirela pentsatu zuten, baina kolektibo feminista ez zegoen testu horietan, ezta edukietan ere: "Ez gintuzten akordio horietan aitoritu ere egiten. Indar gerrillariaren %30

ginen eta gerrilla sostengatzen zuen oinarri sozialaren %60. Gerrak sekulako eragina izan zuen sexualitatean eta amatasunean; mendia ez zen neutroa".

Herrera azpimarratu zuen 23 urtetan hainbat gauza aldatu direla: beldurrik gabe borrokatzeke eskubidea eta marko ekonomiko eta soziala, besteak beste. "Ekonomia ikuspegitik, lurrak hain garrantzitsua izateari utzi dio. Emakumeak gutxietsi gintuzten lurrak esleitzeko garaian. Borrokatu genuen eta azkenean lortu genuen lurren %8 beharrean %30 izatea".

Poliziarekin akordioa lortu zuten. Haien helburua segurtasun zibilaren ikuspegia aldatzea zen. 2009an hasita, genero indarkeriaren biktimen inguruan formatu zituzten poliziak eta buruzagitza bera.

Eskubideen onarpen formala ere lortu dute, indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko lege berezia, kasu. "Emakumeen aurkako indarkeria gehienak barnebiltzen ditu, baita emakumeak artatzeko prozedurak ere".

Guatemalan militarrek jomugan jarri zituzten

1960 eta 1996 artean iraun zuen gerra zibila ezagutu zuen Rosalina Tuyuc. Gatazka armatu ondorengo bake



*Ezkerretik eskuinera Aitziber Blanco
moderatzaila, Irantzu Mendia,
Rosalina Tuyuc eta Morena Herrera hizlariak.*

negoziazioaz aritu zen mahai-inguruan. Biktima askok ez zuten negoziatioetan parte hartzeko eskubiderik izan, “garestiegia zen haientzat”.

1996an hasi ziren negoziazioak. Armadak, gerrillak eta Estatuak hartu zuten parte, eta Eliza Katolikoa eta Nazio Batuen Erakundea izan ziren ikuska-tzaileak. Gizarte zibilak bitartekarien bidez hartu zuen parte. Gardentasunaren aldeko borroka gidatu zuten eta eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak aldarrikatu zituzten.

Mugimendu feministaren eskaera garrantzitsuena emakumeen justizia izan zen. “Emakumeok sexu gehiegikeriak jasan genituen, militarrek bortxaketa masiboak egin zituzten”. Epaileak, fiskaltzak, eta oro har, giza eskubideen aldeko emakumeak elkartu ziren militarrek zigortzeko. Garrantzi handiko prozesu judiziala jarri zen martxan tortura, krimen eta indigenen aurkako bortxaketak egozten zizkieten militarren aurka.

Prozesu judizial horren garrantzia nabarmendu zuen Tuyucek. “Prozesu horren ondorioz, emakumeak ahaldundu egin ziren eta emakumeen osasun mentala indartu zen. Urte askoan erantzukizuna gurea zela sentitu genuen, eta orain pentsatzen dugu militarrena izan zela erantzukizun osoa”.

» **IRANTZU MENDIA:**
“Euskal Herriko mugimendu feminista banatu egin zuen borroka armatuaren aldeko edo aurkako hautua egin behar izateak. Oraindik ere zauriak irekita daude”

Tuyucen ustez, arrazoia da garrantzitsuena. “Gure hitzak, gure arrazoiak eta gure historiak baino ez dute balio. Arrazoia erabili behar da eta ez indarkeria, hori da garrantzitsuena horrelako prozesuetan”. Era berean, inolako bazterketarik gabe, hainbat belaunalditako jendearen parte-hartzea azpimarratu zuen: “Emakumeek eta gizonek hartu behar dute parte. Gazteriak eduki behar du erabakiak hartzeko boterea. Historia ezagutzen ez duen gazteriarekin zaila da behar ditugun aldaketa sozial guztiak martxan jartzea”.

Gizarte zibilak parte hartzearen garrantzia

Irantzu Mendiaren ustez, nabarmentzekoa da gizarte zibilak bake negoziatioetan parte hartzeko aukera eduki izana Guatemalan, El Salvadorren ez bezala. Horri esker emakumeen arteko sareak sortu zituzten, eta aldi berean, erronka handia izan zuen mugimendu feministak: “Mugimendu feministak artikulatutako proposamena eman behar izan zuten negoziatio mahaira, eta akordio minimo batzuk lortu behar izan zituzten”.

Soziologoa ezkorra da Euskal Herriko mugimendu feminista gaur egun hori egiteko gai izango litzakeen gogoetatzerakoan. “Borroka armatuaren aldeko edo aurkako hautua egin behar izateak Euskal Herriko mugimendu feminista banatu zuen. Oraindik ere zauriak irekita daude. Mugimendu sozial moduan puntu batzuetan bat egin beharko genuke emakumeen gaia erdigunean jartzeko”.

Morena Herreraren iritziz, “bake ba-koitza ezberdina da, baina garrantzitsuena da bat gatozen puntuetan aurrera egitea”. Herrerak argi du emakumea dela milurteko honen protagonista: “Guk borrokatu ezean, ez du beste inork gure eskubideen alde egingo”. ■

ALFREDO ESPINOSA

AGIRRE LEHENDAKARIAREN SAILBURU FUSILATUA

1937ko ekainaren 26an fusilatu zuten faxistek Gasteizen. Hilabete honetan inauguratuko dute bere izena daraman Urdulizko ospitalea. Alfredo Espinosa errepublikarra Bilbon zinegotzi, Burgos eta Logroñoko gobernadore zibil eta lehen Eusko Jaurlaritzako osasun sailburua izan zen. “Txiroen medikua” izenez ere ezaguna, ahalegin handia egin zuen gerra betean herritar guztientzako mediku-artapena ziurtatzeko.



Aitor Azurki
@aitorazurki

“Espinolari deitu diot. Oso berandu da: bostak eta laurden. Hitz egin dugu, konfesatu da. Negar handiz barkamena eskatu dio Jaungoikoari malko artean. Bere Pakita etengabe gogoratzen du. Zeruan berriz ikusiko dute elkar”. Alfonso Moreno jesuitaren hitzak dira, Alfredo Espinosa fusilatu aurreko une latz horietan berarekin egondako erlijiosoak. Ondoren, kamioira igo eta Gasteizko Santa Isabel hilerriko paretetan fusilatuta, hobi komun batean lurperatu zuten 1937ko ekainaren 26an. Agirre-ren gobernuak exekutatu bakararra dugu.

Bere ondoan, metro gutxira Jose Agirre artilleria-komandantea ere fusilatu zuten. Hil baino lehen, eskutitzak idatzi eta idatzi aritu ziren biak. “Espinosa asko sufritu zuen. Hesituta sentitzen zen, gaizki zainduta. Gau osoan idazten. Asaltoko guardiak, inoiz bezala oso adeitsu eta gizatiar, ia denbora guztian eurekin bakarrik utzi ninduten. Denbora behar zuten. Idazteko denbora. Exekuzioa atzeratzea beharrezkoa da. Telefonoz deitu dute,

kontsultak eta erreguak daude... Papera amaitu da. Protesta egin dute. Erresidentziara joan naiz paper eske. Asko eskertu didate”, dio Morenok azken orduetako tentsioa agerian utziaz.

Gutunak, besteak beste, amari eta Agirre lehendakariari zuzendurikoak dira: “Nire lagun eta kide maitea –dio Espinosa horietako batean–. Zuri zuzentzen natzaizu Gobernu osoaren izenean, Gasteizko presondegian exekutatu baino apur bat lehenago. Zarauzko plazan preso hartu gintuzten hegazkina matxuratu zelako edo gidariaren traizioarengatik; epaitu eta heriotza-zigorra kondenatu naute, eta gaur bi orduren buruan sententzia betekoa dute”.

Erlijiosoak idatzi batean deskribatu zituen hilerriarako azken uneak: “Bidea gero eta motzagoa den itoaldia izugarria da. Jaitsi gara. Hormaren aurrean gaude. Eskapularioa jarri diot. Agur esan diot. Muxu eman diote, nire gurutzea musukatuz jarraitu naute biek. Kargatu! Apuntatu! Su!”.

Irudian, Espinosa zaurituak bisitatzen 1937an, Agirre lehendakaria ondoan duela. Beheko dokumentuan, bere kontrako sumarioan heriotza-zigorra agintzen duen epaia.

Baina, nola amaitu zuen Agirreraren gizonak frankisten eskuetan? Espinosa ekainean Baionara joana zen osasun-materiala erosi asmoz, Gortizeko haurren koloniar lagunduta, hain zuzen. Lanok amaiturik, ekainaren 21ean Bordeleko aireportutik Santanderrera, borrokan ziren gainerako gobernukideengana itzultzeko hegaldia egin zuen, baina bat-batean aparatua Zarrutzen lurreratu zen, José María Yanguas pilotuak traizionaturik.

Lan itzela haur errefuxiatuekin

Espinosa lan eskerga egin zuen bizitza osoan umeen eta behartsuen egoera hobetze aldera: “Gerran herritarren mediku-artapenez arduratu zen batik bat, bereziki ebakuatutako eta errefuxiatutako haurrez”, dio Jon Penche historialariak, *Alfredo Espinosa. 1903-1937. Un republicano al servicio de Euskadi* liburuaren egileak. Ospitale sare zabal baten sortzailea ere badugu. Iñaki Egaña Aranzadi elkarteko historialaria ere bat dator: “Ahalegin izugarria egin zuen ebakuazioetan. Lan itsusi



eta ezkutukoena zen eta zirrikitu guztiak aprobetxatu zituen ospitaleak egiteko. Espainiako Gurutze Gorria desegin eta Euskadiko Gurutze Gorria ere sortu zuen”.

Medikuntza Fakultatearen sorkuntzan ere parte hartu zuen, “garai horretan ireki zen bakarra”, nabarmendu du Penchek. Errepublikar familia ospetsu bateko semea izaki, konpromiso sozial eta politikoa gaztetatik izan zuen: “Unibertsitate garaietan ekin zion militantzia politikoari eta 1931n Partido Republicano Radical Socialista alderdiko zinegotzia izan zen Bilbon. Ondoren, Burgosek eta Logroñoko gobernadore zibil izendatu zuten”. Medikua lanbidez, kontsultetako bat Bilboko San Frantzisko kalean zuen. “Txiroen medikua izenarekin ezaguna zen, auzoko behartsuak artatzen baitzituen doan”, dio.

Faxisten 1936ko estatu kolpea jazo eta segituan, Errepublikako Komisaldegia Orokorreko osasun arduradun izendatu zuten Bizkaian. “Estatu kolpearen indarra ikusirik, komisaldegia Defentsa

Batzorde bilakatu eta komunikazio arduradun nagusi egingo dute Espinosa”, azaldu du bere biografoak.

Heriotza-zigorraren aurka

Espinosa argi ditu gauzak, eta halaxe adierazten dizkio lehendakariari: “Tribunalek inor heriotza-zigorrera kondenatuz gero, nire bozka, beste mundutik, beti indultuarena izango da”. Egoera gogorra izanagatik, beste presoez ere oroitu zen: “Atzo Lauaxeta fusilatu zutela uste dut, beste martir bat, asko daude heriotzara kondenaturik. Denon trukaketa ahalik eta lasterren egin ezazue, egoera horretan bizitza ikaragarria baita”.

Pencheren esanetan “kudeatzaila oso ona izan eta beti giza eskubideenganako errespetua gorde bazuen ere, Espinosaren memoria ahazturik egon da”. Bilbon bada Alfredo Espinosaren izena darman kalea, baina Pencheri ulergaitza zaio zergatik erantsi dioten izenari “doktore” kargua eta ez, aldiz, sailburuarena. “Bere alderdia desagertu egin zen eta histo-

riak xurgatu egin du Espinosaren irudi erraldoia”, gaineratu du Egañak. Bilboko 1937ko urtarrileko kartzela asaltoetan, adibidez, presoak laguntzen lehen sailburua izan zen.

Paradoxikoki, faxistek ez zioten bizitza barkatu, eta Espinosa trukatzeko Eusko Jaurlaritzaren saiakeren aurrean, Franco bera izan zen espresuki ezetz esan zuena: “Herriak justizia eta odola eskatu ditu”. Izan ere, bi historialarien aburuz, mediku eta sailburuaren exekuzioarekin eskarmentua eman nahi izan zitzaion Eusko Jaurlaritzari.

“Adiskide -idatziko dio Agirreri-, esan gure herriari Gobernuako sailburu bat adoretu hilko dela, eta, atsegin handiz honen askatasunaren alde bizitza eskaini duela”. Amari, berriz, honela zuzendu zitzaion: “Zure seme Alfredo ausarki hilko da, Pepe hil zen bezala: sekula desohore eta doilorkeriarik egin ez dudaren harrotasuna izan ezazu; nire Aberriarengatik, Espainiarengatik eta Errepublikarengatik hilko naiz”. ■

Brendan Ogle

“URAREN ZERGEN AURKAKO KANPAINA, MUGIMENDU SOZIAL ETA POLITIKO BIHURTU DA”

Urteak daramatza Irlandak krisiaren ondorio latzak jasaten: hezkuntza, osasun eta zerbitzu publikoetan murrizketak, zor publikoaren ordainketak... 2014an Troikak Irlandari maileguak emateari utzi zion eta horri gobernua urari zergak ezarri izana gehitu behar zaio. Protesta ugari sorrarazi du irlandar gizartean. 2014an sortu zen “Right2Water” uraren pribatizazioaren aurkako plataformaz hitz egin dugu Brendan Ogle Irlandako sindikalista eta aldi berean “Right2Change” mugimenduaren bozeramailearekin. Uraren aferaz gain, Brexit-az eta Irlandaren etorkizunaz ere mintzatu gara.



Martin Mendizabal

@mendigarai

Zergatik hasi zen *Right2Water* mugimendua?

Irlandak drama ekonomiko kolektiboa pairatu zuen 2009 eta 2014 bitartean. Urte horretan herrialdeak Troikaren maileguak jasotzeari uko egin zion, eta urrian gobernua uraren zergak igotzea erabaki zuen. Austeritate neurri bezala hartzen dugu hori. Sindikatuak, Irlandako ezkerreko alderdiko zenbait politikari eta independenteak batzartu egin ginen neurri horien aurrean hartu beharreko jarreraz eztabaidatzeko. Abiatu genuen kanpainak hiru zutabe nagusi zeuzkan: langile batasuna, politikoa eta komunitatearena. Hiru aldeok ura giza eskubidea zela ados geunden, Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpenean jasota dago. Gure helburua gobernua uraren inguruan ezarritako zerga deuseztatzea zen.

Noiz hasi ziren kaleko protestak?

2014ko urriaren 11n lehen mobilizazioa deitu genuen Dublin hiriburuan, herrialdeko komunikabide nagusien

laguntzarik gabe. 20.000 pertsona espero genituen eta 100.000tik gorako protesta izan zen. Azaroaren 1ean bigarren protesta izan zen, eta nahiz eta sekulako euri zaparrada bota, Irlandako 106 herritan 200.000 pertsonatik gora bildu ziren. Hau bada zerbait 4,5 milioi biztanle dituen herrialde batentzat. Protesta masibo horien ondoren komunikabideen jarrera biziki gaiztotu zen: manifestazioak antide-mokratikoak zirela eta mugimenduen barnean indar subertsiboak zeudela esaten hasi ziren, besteak beste. 2014ko abenduan hirugarren manifestazioa izan zen. Protesta honekin mugimendua nazioartera zabaltzen saiatu ginen. 80.000 pertsona bildu ziren Dublín Parlamentuaren parean. Greziako Tesaloniki hirian 2014an uraren inguruko erreferenduma egin zuten zenbait pertsona izan ziren, baita *Detroit Water Brigade*ko bolondresak ere. Uraren pribatizazioaren aurkako kanpaina bezala hasi zena mugimendu sozial eta politiko bihurtu da. Plataforma politiko bat da *Right2Change*, ez alderdi politiko bat, politika eta politiken arteko desberdintasuna egin behar baita.

Nola zabaldu uraren zergen deuseztatpenen borroka gizarteko beste esparru batzuetara mugimendu gisa?

Irlandako politikan ez da egon ezker eta eskuinaren arteko desberdintasunik, politikan nagusiki Fianna Fáil (zentro-eskuineko alderdia) eta Fine Gael (eskuin kristau demokratik) eskuineko bi alderdi daudelako. Gu ez gara ezker birsortu nahian ari, lehen aldiz sortzen saiatzen baizik. Iraganean sindikatuarekin zerikusia zeukaten kanpaina politikoak zeuden: soldata minimoen aldarrikapenak edota zergen igoeren aurkako esloganak. Edonola ere, kanpaina lokalak ziren. Hau, ordea, Irlanda osoan egin den lehen kanpaina da: sindikatuak, alderdi politikoak eta mugimendu sozialak barnebiltzen ditu. Nire ustez, hau da lorpenik handiena. Irlandak arazo asko dauka: langabezia, kalean bizi den jendea... Baina ez dauka uraren pobrezia-rik. Eskubide hau arriskuan dagoelako atera da jendea kalera. *Right2Water* mugimendutik *Right2Change* sortu genuen 2015eko uztailean Sinn Féin, troskista, langileen alderdi eta independenteekin uraren zergen aurka egoteaz harago adostu genituen puntu komunitatik.



Zeintzuk dira puntu komunak?

Right2Change mugimendua ezaugarrituko zituen hamar neurri adostu genituen: finantza pribatuek gizartean utzi duten zorraren kontu ikuskaritza eta banku sistema publikoa sortzea, herrialdearen erreforma demokratikoa, doako hezkuntza, irlandar eta atzerritarren arteko berdintasun sistema eraikitzea, osasun sistema publikoa berrezartzea, herritarren beharren arabera etxebizitza politika sortzea, lan duinak sustatzea, herrialdearen baliabide naturalak errespetatzea fracking-a debekatuaz, eta azkenik, uraren tasak indargabetzea. 2015eko ekainean argitaratu genuen dokumentu honen printzipio politikoak Irlandaz gain, Europar Batasuneko edozein herrialdetan aplikatu daitezke. Uraren zergen aurkako mugimendua *Right2Change* mugimenduaren oinarria izan zen.

Zer-nolako ikuspegia duzu Brexit-aren inguruan?

Lehenik eta behin ni europarra kontsideratzen naiz. Herrialde guztiak ditugun etsai komunak transnazionalak eta neoliberalismoa dira, eta horregatik horien aurka borrokatu behar dugu. Europar Batasuneko eredia ez da gai herritarren arteko berdintasuna bermatzeko. Datorren krisi ekonomikoa Brexit-a, Txinako egoera ekonomikoa eta Alemaniako Bankuetako arazo estrukturalak sortuko dute, eta honek Europar Batasuneko

erorketa ekarriko du. Momentu honetan inperialismo ekonomikoa ikusten ari gara. Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzen bada, irlandarroi aukera erreal berria suertatuko zaigu herria demokratizatzeko. Joan den otsailean Berlinen sortu zen DIEM25 mugimenduan parte hartu nuen. Bertan esan nuen jada 2025a Europa demokratizatzeko oso berandu izango dela. Europar Batasuna bai politikoki bai sozialki hil egingo da. Jendeak Europar Batasuna defendatzen du alternatibarik existitzen ez dela pentsatzen duelako. Hau da, Europar Batasunean sinestearen arrazoi bakarra, zerbait berria garatzeko esperantza eza da. Britainia Handia Europar Batasunean gelditzen bada, Europar Batasunaren desagerpena soilik tarte motz batean atzeratu egingo da. Europako herrialdeen artean Europar Batasuna zerk ordezkatzeko duen hitz egiten hasi behar da. Nazionalismoek ordezkatzeko badute oso arriskutsua izango da, bai Irlanda bai Europar Batasun guztian ere.

Datozen hamar urteetan desobedientzia jarrera hartu beharko al luke irlandar gizarteak?

Hau da momentu honetan daukagun erronka. Irlandako bi alderdi politiko nagusiak gizartearen erdiak baino gutxiagok babesten dituzte. Erroldatuen %65ak bozkatzeko du, eta bozka horietatik %49a eskuineko bi alderdi nagusietara doa. Hilzorian daude bi alderdi



RIGHT2CHANGE

Otsaileko hauteskundeak baino bi aste lehenago, "Chance" aldizkari 200.000 ale ateratzen zituzten mugimenduaren printzipioen berri emanez.

nagusiak. Demografiaren ikusiz gero 30-40 urte azpiko oso pertsona gutxi bozkatzeko dituzte bi alderdi nagusiak. Sistema demokratikoa haustura puntu batean dago eta aldaketaren oinarria politikarekiko kezka izan behar da, ez kezka pertsonala. Sinn Féinek haustura txiki bat besterik ez du egin sisteman. Beste ezkerreko alderdiek ez diote gobernuari inolako pitzadurarik eragin. Sistema demokratikoan hutsune oso handia dago. Hutsune hau nabaritzen ez den bitartean, gizartea guztiz garaituta dago demokrazia parte hartzailearen parametroetan, eliteek orain daukaten baina indar gehiago hartuko baitute. Berdintasunean oinarritutako politikak progresiboak izan behar dute aldaketaren funtsa, munduaren birbanaketa justua oinarri duena. Hau gertatzen ez bada, pixkanaka demokrazia galtzen joango gara, nahiz eta ez dudan sinesten egun demokrazian bizi garenik. Herrialde txiki honek Europar Batasunaren populazioaren %1 baino gutxiago edukita, Europako bankuen zorraren %41 ordaindu behar du. Nire seme-alabak 2053. urte arte ordaindu beharko dituzte, sortu ez dituzten zorrak. Zein motako independentzia da hau? Kultur identitatea (poetak, musikariak, folklora) oso garrantzitsua da herri batentzat, baina guk independentzia ekonomikorik ez dugu. Eskubideak al ditugu etxebizitzaren inguruko, uraren inguruko, lan mundua politikak erabakitzeke? ■

Corrandescola

GAZTETXOAK KATALANEZ INPROBISATZEN

Helburua ez da glosak eta corrandak berreskuratzeaz gatzetxoak arduratzea. Kontua da katalana aisialdiarekin, ondo pasatzearekin, lotzea. Irakasleak ikasleak inprobisazio mota honekin motibatzen saiatzen dira, lortuz gero, bai ala bai, katalanez arituko baitira, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo.



Dabi Piedra

ARGAZKIAK: CORRANDESCOLA

Euskarari gertatzen zaion bezala, gatzetxoaren aisialdian du erronkarik gogorrenetakoa katalanaren normalizazioak. Ondo pasatzeko bitarteko gehienak –bideo-jokoak, telesailak eta modako musika, adibidez–, gatzelaniak daudenez gehienbat, erne daude hizkuntzaren aldeko eragileak, neska-mutilek ez ote duten lotuko ondo pasatzea gatzelaniarekin soilik, katalana ikasgelarako utzita. Horregatik, Corrandescola egitasmoak haize feskoa ekarri du. Corrandisten eta glosadoreen tankeran inprobisatuta, katalanaren alde ludikoarekin egin dute topo. Ez hori bakarrik, adierazkortasuna eta musika lantzen dituzte, baita jendaurreko jardunari beldurra galdu ere.

Albert Casals, Bartzelonako UAB unibertsitateko irakaslea dago Corrandescolaren abiapuntuan. 2006-2007 ikasturtean tesia idatzi eta programa berritzailea ezarri zuen, proba gisa, Kataluniako hiriburuko eskola batean. Hurrengo ikasturtean, beste lau eskolara eraman zuen egitasmoa. Behin betiko proposamena, Corrandescola programa didaktikoa, 2009an aurkeztu zuen. Lehenago ere, katalanezko inprobisazioa erabiltzen zen helburu pedagogikoekin, baina funtsezko arazo batzuk bazirela konturatu zen Casals: ume txikiekin baino ez zen lantzen eta identitatearekin lotuago zegoen, pedagogiarekin baino. “Inprobisazioak es-

kola-curriculumeko gainerako arloetan eragin zezala nahi nuen, adibidez hizkuntza lantzeko”, dio Casalsek.

Glosadoreen eta corrandisten tradizioa, Herrialde Katalanetako inprobisazio moldeetako bat da, Kataluniako Printrerrikoa jatorriz –Menorcan, Mallorcan, Valentzian eta Ebroko lurretan ere bada katalanezko beste inprobisazio batzuk–. 1990eko hamarkadan galtzearen egon zen, baina gaur egun, tradizioak osasun hobea du. Hala ere, Albert Casalsek dioenez, Corrandescolaren helburua ez da ohitura hori berreskuratzea eta sustatzea, helburu pedagogikoetarako erabiltzea baizik. Ez dituzte inprobisatzaileak eskoletara eramaten, alderantziz baizik. Hau da, irakasleei ematen diete formakuntza, inprobisazioaren nondik norakoak barnera ditzaten, gero ikasgelan lantzeko. “Horrek alde didaktikoa ondo garatuko dela bermatzen digu eta curriculumaren beste alderdi batzuk inprobisazioarekin uztartuko direla”.

Casalsen tesiaren harira, Lehen Hezkuntzako maisu-maistra batzuk elkartzen hasi ziren, eredu berritzaile hura ikasgelara nola eraman aztertzeko. Tartean zen Gemma Pla, Cor de Cartxofa kultur elkartearen kidea eta Cassa de la Selva herriko eskolan musika irakaslea. Bere kabuz ere landua zuen aurretik inprobisazioa ikasleekin eta Corrandescolari berehala antzeman zizkion hainbat



onura. “Liburuetatik eta koadernoetatik aldentzen da katalana, ikasleek gozatu egiten dute, hizkuntzarekin jolastu eta kantatzen dutelako”, dio Plak.

Eskaria hazten

Bost urte inguru daramatzate Corrandescola ikastetxeetan modu antolatuan ezartzen, Albert Casals koordinatzaile dela. Urtetik urtera, gero eta ikastetxe gehiago batzen zaizkie. Aurtengo ikasturtean, esate baterako, ia 40 eskolak parte hartu dute, hau da, 700 neska-mutil inguruk. Programa ofizialetik kanpo ari diren ikastetxeen berri ere badu Casalsek, haien formakuntza jaso duten irakasle askok beren kabuz eramaten baitute Corrandescolako metodologia ikasgelara. Hortaz, ezin jakin zenbat ikasle ari diren, guztira, inprobisazioa lantzen.

Glosak eta corrandak, funtsean, jendaurreko jarduera direnez gero, eskolarteko topaketak egiten dituzte kurtso amaieran, gelan ikasitako guztia erakusteko. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako neska-mutilek oholtzatik abesteko aukera dute, ikaskideak eta beste eskola batzuetako gazteak entzule direla. Aurten lau topaketa antolatu dituzte. “Ez dago lehiarik, erakustaldiak dira funtsean”, dio Casalsek. “Azken finean, helburu nagusia da, ikasle guztiek edo gehienek publiko aurrean kantatzea eta inprobisatzea”.



2011ko Corrandescola topaketa. Ez da lehia izaten, erakustaldia baizik. Hainbat ikastetxetako ikasleak oholtzara igotzen dira inprobisatzera. Entzuleen artean ikaskideak eta beste ikastetxeetako gaztetxoak izaten dituzte.

Corrandescolaren metodologia praktikan oinarritzen dela dio Casalsek. Katalan eta musika arloetako irakasleak dira arduradun nagusiak. Kontzeptu errazena lantzen hasten dira: doinuak zeintzuk diren, nola errimatzen den eta abar. Ondoren, inprobisaziorako beharrezkoak diren gaitasunak ikasten dituzte, hala nola, baliabide estilistikoak eta oholtzan izan beharreko jarrera. Gemma Plak dioenez, ikastetxe bakoitzaren mailara egokitu behar dute programazioa: “Ez da gauza bera ikasle guztiak jatorriz katalan hiztunak izatea edo kanpotik etorritako ikasle asko egotea. Katalana ez bada beren lehen hizkuntza, gauza errazekin hasten gara, esaterako errima pareekin”.

Bizipen positiboak

“Motibazioa areagotzen duen jarduera ludikoa da, ikasgelatik kanpo ere praktikatzera bultzatzen ditu gazteak”, azpimarratu du Casalsek. Hizkuntza gaitasunean eragin positiboa du horrek eta, gainera, jendaurrean hitz egiteko, diskurtsoa egituratzeko eta norbere akatsak onartzeko baliabideak ematen ditu. “Sintesirako gaitasun itzela lortzen dute neska-mutilek, lau bertso-lerrotan dena esan behar dute!”, gaineratu du Gemma Pla irakasleak. Estereotipoak gainditzen ere laguntzen du, arlo akademikoan kili-kolo dabilen ikaslea inprobisatzen iaioa izan liteke eta. “Ikasleak pozik daude, funtzionatzen du”, ziurtatu du Plak.

Nolanahi ere, onuradun nagusia katalana bera da. “Hizkuntza guztientzat, batik bat estatutik gabekoentzat, ezinbestekoa da bizipen positiboekin lotura izatea”, azaldu du Casalsek. “Jatorriz katalan hiztun ez diren askoren aurreiritziak gainditzeko lagundu digute glosek”. Inguruko hizkuntzetan ez dago antzeko tradizioarik eta, hartara, ikasleek naturalizat jotzen dute inprobisazioa katalan hutsean egitea. “Raparekin, adibidez, ez da hori gertatzen, katalanez ez ezik beste hizkuntza batzuetan ere badela ikusten baitute”.

“Hizkuntza batek biziraun dezan, nahitaezkoa da hiztunek bizitzako gauza guztiak hizkuntza horretan egin ahal izatea, iraindu, ondo pasatu eta poesia erromantiko bat idatzi”, nabarmendu du Casalsek, “horregatik, geure-geureak diren elementu ludikoak behar ditugu eta inprobisazioak zeregin hori betetzen du”. Corrandescolaren asmatzaileak ziurtatu duenez, “katalanaren geroa aisialdiaren eremuan erabakiko da”. ■

BABESLEA: HERNANIKO UDALA



Patata zomorroaren gerra



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Patata zomorroa Europako ehun izurriten txarrenen artean dugu. Gerra ederra ematen du. Oligofagoa da, hau da, jaki gutxi batzuk besterik ez ditu jaten: patatak (*Solanum tuberosum*), baina bere senide diren alberjiniari (*Solanum melongena*) eta tomateari (*Solanum lycopersicum*) ere erasotzen die. Belarjalea da eta, harra denean bezala heldutan, koskaka-koskaka, di-da batean, landarea goitik behera soildu dezake; hostoa, lorea, zurtaina, den-dena jaten du.

Patata zomorroa edo patata kokoa AEBetako Colorado eta Mexiko artean ezagutu zen, 1824 aldera. XIX. mendearen amaieran Alemanian azaldu zen, baina erraz menderatu zuten. Lehen Mundu Gerran egonkortu zen Europan, Bordele aldameneko estatubatuarren base militarrean. Bigarren Mundu Gerran bizi hedatu zen: Belgika, Herbehereak, Espainia... Gerra ondoren, Ekialdeko Alemanian ikaragarritzko izurritea izan zuten, eta estatubatuarrak hegazkinez zabaldu zutelako kontua zabaldu zen. Varsoviako Ituneko herrialde "komunistek", CIAren konplota zelakoan, ikaragarritzko kanpaina egin zuten, eta ikastetxeetan erakusten zitzairen haurrei zomorroiari kontra nola egin. Duela bi urte, Ukrainaren eta Errusiaren arte-




Patata zomorroa Lehen Mundu Gerran egonkortu zen Europan.

ko gerran, ukrainarrek patata zomorroi deitzen zituzten errusiazaleak; azken horiek Errusiako ikur militar ezagunena den marra beltz eta urre kolorekoak dituen xingola bat zeramaten soinean, zomorroaren itxura berekoa.

Patata zomorroa bere burua egoera txarrenetara egokitzeko gai den intsektu xelebrea eta egoskorra da. Adibidez, DDT intsektizidari aurre egiteko erresistentzia garatu zuela egiaztatu zuten AEBetan 1949an; pozoi izugarri horri kontra egiten lehena izan zen. Horrexegatik oso zaila da pozoi kimikoekin

berari aurre egitea. 2015. urterako, 55 produkturi buru egiteko gai zen. Kimikan ere, ez dago zomorroi hau garaituko duen produkturik.

Gerrak asko erakusten du, ordea. Zomorroaren arerioak ezagutzen ari gara. Lurreko zomorroi batek, *Lebia grandis*, patata zomorroaren arrautzak eta hartxoak jaten ditu. Eta ikaragarritzko kalteak eragiten dizkio onddo batek, *Beauveria bassiana* izenekoak; gero eta gehiago erabiltzen da intsektizida natural hori. Nori bere ordaina; esaerak hala dio: "Emailari emok, egileari egiok". ■



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com



DANI BLANCO

Baratzeko umoretik 'Altza Porru'



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Garaiko produktuak dastatzeko aukera izan dute hilaren 16an Karabeleko eko- nekazaritza etxalde esperimentalerako gunera gerturatu direnek. Jakoba Errekondok zortzi euskal marrazkilariekin eta ARGIArekin elkarlanean argitaratu duten 'Altza Porru' liburuaren aurkezpenari hasiera emateko leku aproposa topatu dute, albahaka eta tomate landare artean, iritsi bezala gaian sartzen joateko. Bizi Baratzea proiektuaren barruan kokatzen da bigarren liburu hau, lurrari lotua dena irudi eta umoretik ezagutzeko aukera ematen duena.

Maialen Lujanbiok hartu du hitza Urko Apaolaza ARGIAko kazetariak emandako azalpentxoaren ondoren, eta hitz egin digu liburuan idatzitako hitzaurreaz. Kalekumia. Nire burua ikusi ahal izan dut egoera horretan, ni izan nintekeen *Tomate Urdinduenaren Komandoko* zaharrei irri nano bat egingo ziena, lauhortzekoa eskuan amonari noizbait entzundako hiztegia errepasatzen ari nintzen bitartean.

Idoia Torregaraik egin du Jakoba Errekondoren aurkezpena, herrikidea izanik askok baino hobeto ezagutzen baitu, bere terrenoan, egoera naturalean.

Jakobak berak eman dio liburuari errepasorik sakonena jendaurrean. Marrazkilariek egindako komikiak tartekatzen dituen testuak idatzi ditu Errekondok, ilargia, euskarazko esarak, baratzaren diseinuak edo landareei eta lurrari lotutako irainak gaitzat hartuta.

Komikilariek hiru ariketa egin behar izan dituzte liburuan. Batetik gai librean ortuaren inguruko istorio bat sortu dute; bigarrenik Jakobak irratian jasotzen dituen galderak eta emandako erantzunak hartu eta bakoitzak galdera/erantzun bat irudikatu du; eta hirugarren ariketari Desafioka izena jarri diote, bertotako kartzelakoaren estilokoa. Karabelekoan ere lanean jarri dituzte, margoak eskuan, Ainara Azpiazu "Axi", Joseba Larratxe, Antton Olariaga, Asisko Urmeneta, "Mattin" Martiarena eta Zaldieroa, eta azaldu dute bakoitzaren zer aurkituko dugun 'Altza Porru'n. Unai Iturriagak eta Unai Gaztelumendik ezin izan dute aurkezpenean egon, baina momentuan egindako beren karikaturekin ekarri dituzte.

Bete eta osasuntsu ezin baitaiteke izan irribarrerik gabe! ■



BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

t @bizibaratzea

Salneurria: 23 €

Harpideentzat: 19,50 €



ALTZA PORRU

Marrazkilariak: Asisko, Unai Iturriaga, "mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 €

Harpideentzat: 18 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Ekainak 22: Getxo

sOrtuak ekimeneko baratzetean, 19:00etan. (Eguraldi txarra izanez gero aterpera aldatuko da).

Antolatzailea: Egizu Getxo Euskaldun.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus

☎ 943 371 545

PEDRO BERETERRA, ZURE ZERBITZURA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Napoles, 1528. Pedro Bereterra itsasgizon, militar eta ingeniari nafarra hil zuten Castelnuovo gazteluan. Karlos V.aren soldadu espainiarrek preso hartua zuten eta, itxuraz, gazteluko gobernadoreak berak asfixiatu zuen, Bereterra estimatuari urkamendiaren desohorea saihesteko aukera emateko.

1460 inguruan jaio zen Garden, Erronkarin. Gaztetan joan zen Italiara, Zangozan ezagutu omen zituen merkatarari genoar batzuekin batera. Haien zerbitzura hasi zen lanean eta, ondoren, Napolesko errege Fernando I.aren seme Joan kardinalaren agindupean jardun zuen, hura 1485ean hil zen arte.

Badirudi kortsario ere aritu zela Napolesen zerbitzura, horren berri zehatzik iritsi ez zaigun arren. Florentziarrekin bat egin zuen Genoaren aurka. Eta Adriatikoko itsas potentzia nagusi zen Veneziako Errepublikako ontziren bat harrapatzea ere lortu zuen.

1500ean Gaztela eta Aragoiko armadak preso hartu zuen eta haiekin bat egin zuen, nagusiki Afrika iparraldeko gerretan aritzeko. Orango konkistan eta Bugia nahiz Tripolikoko guduetan jardun zuen, besteak beste, eta Italian bertan, frantziarren aurka aritzea ere egokitu zitzaion. Fernando Katolikoak Oliveto konde titulua eman zion eta kapitain jeneral kargua lortu zuen. Frantziarrek



Ezkerrean, Pedro Bereterra (ca. 1460-1528). Eskuinean Fernando Aragoikoa, erronkariarrak gerora arbuatuko zuen konde titulua eman ziona.

Ravennan hartu zuten preso 1512an eta, hiru urte giltzapean egon ondoren, konde tituluari eta karguei uko egin eta frantziarrekin bat egin zuen aurrez kide izan zituen espainiarren aurka, azkeneko giltzapetu eta hil zuten arte.

Zenbait historialarik, espainiar historiografia militarra nagusiki, traidoretzat jo izan du Pedro Bereterra, baina kontua da bere zerbitzua armadei eskaini baino, armadek eskatu zutela haren zerbitzua. Itsasoan trebea bazen, are



BURGOSKO MUSEO MILITARRA / KUNSTHISTORISCHES MUSEUM

estimatuagoak ziren haren gaitasunak lehorrean. Infanteria antolatzeke metodo berritzaileak erabiltzen zituen eta, batez ere, gotorlekuak erasotzeko mina bereziak asmatu zituen, garaiko gerra estrategietan eragin handia izan zutenak.

Iruñean bada Oliveto Kondea izeneko etorbide bat. Tituluari uko egin ziola kontuan hartuta, ez dakigu haren omezez ala gaitzespenez jarri zioten izena kaleari. ■

Kristobal Kolonen aurkikuntza klimatikoa

Amerikara egindako bigarren bidaiari, 1494ko uztaillean, Kristobal Kolonen ontziak Kuba eta Jamaikaren artean nabigatzen ari ziren, montzoiaren zaparradei nola edo hala eutsiz. Euri erauntsiek ontzien sotoak urez betetzen zituzten eta bero itogarriak ere ez zuen laguntzen janaria kontserbatzen. Espedizioa arriskuan zegoen.

Egoera kritiko horretan, haxe idatzi zuen Kolonek: "Hemengo zerua, airearen egoera eta eguraldia ingurukoak bezalakoak dira; egunero hodei bat agertzen da, ordubete inguruko euri-jasa ekartzen duena, batzuetan gehiago eta bestetan gutxiago, eta herrialde honetako zuhaitz handiengatik gertatzen da hori". Koloni esperientziak esan

omen zion baso-estaldura eta prezipitazioak lotuta zeudela: berdin gertatu zen "Kanariar uharteetan, Madeiran eta Azoreetan, baina hango zuhaitzak bota zituztenetik ez dago hainbeste hodeirik eratzen eta eta ez du hainbeste euri botatzen". Beraz, deforestazioaren eta klima aldaketaren arteko loturaz jabetu zen. ■



ZORNOTZAKO BARNETEGIA

Euskara ikasten lagunduko dizu ARGIAk



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Zornotzako barnetegian ARGIA erabiltzen dute euskara ikasteko. Hori entzun dugu orain aste batzuk. Eta ARGIAko lantalde guztia emozionatuta, noski! "Euskararekiko harremana bultzatzeko tresna egiten dugu", "euskara ikasleei euskal prentsan murgiltzeko aukera ematen diegu"... zirrara zurrunbiloaren erdian baten batek botatzen duen arte: "Hau komunitatean sartu beharra dago!". Hor bukatzen da batzuen orgasmoa eta nire txanda heltzen da. Beraz, hemen natorkizue Zornotzako barnetegian ARGIArekin daukaten harremana kontatzera.

Egia da, agian ez horren modu esajeratuan, baina Zornotzan lortzen dutela ikasleen eta ARGIAren artean *feeling*-a sortzea. Urteak dira harpidedun direla, eta ariketa ezberdinak egiteko baliatzen dituzte testuak: hiztegia lantzeko, irakurri ondoren leiturakoa azaltzeko, egitura ariketak egiteko... Gaietan anitza izateak jokoa errazten die irakasleei, eta gozagarriago egin ziurrenik ikasleei.

Aitortu digute, ordea, ARGIA.eus webgunea erabiltzen dutela asko, multime-

diako bideoak eta blogetako sarrerak lantzeko. "Jaun eta jabe" edo "Martin" bezalako telesailak baliatzen zituzten orain urte batzuk ikus-entzunezko ariketak egiteko, baina gaur ARGIA bezalakoek duten material guztiarekin ikasleak errealitatera hurbiltzeko aukera ematen du. Gaurkotasunezko gaiak landuz, euskara ariketa soila izatetik, lau paretan artetik atera eta baliagarri ikusten dute; baliagarri informazioa jasotzeko, baliagarri informazioa zabaltzeko, eta baliagarri zure iritzia euskaraz emateko. Ikasleak beren gustuko gaiak euskaraz ere irakur, ikus edo idatz ditzaketela jabetzen dira, eta klasetik kanpo euskaraz funtziona daitekeela ere bai.

Zazpigarren urratsaren bueltan hasten dira eskoletan horrelako materiala lantzen, baina aldi berean Zornotzako barnetegiak urtean zehar bere sare sozialetan zabaltzen ditu interesgarri zaizkion ARGIAko eta beste zenbait euskal hedabidetako elementuak; euren hitzetan "denona baita euskara ahalik eta gehien zabaltzea eta hizkuntzarekiko konpromisoa hartzea". ■

Sarean arrantzatua



Kooperatibagintza "zahar" eta "berria" topaketan

Eskoriatzan Lanki ikertegiaren eskutik IV. Kooperatibagintza Topaketa egin zen ekainaren 10ean Kooperatibagintza eta eraldaketa soziala gaia ardatz hartuta eta ARGIAko kideek ere hartu zuten parte. Mondragon taldeak aurki egingo duen biltzar nagusian eraldaketa sozialak presentzia handia izango duela ziurtatu zuten antolatzaileek; topaketak balio izan zuen zenbaitek kooperatibagintza "zaharra" deitu dutena eta ekonomia eraldatzailearen bueltan dabilzan eragileak (ARGIA, Olatukoop, Bartzelonako Ciutat Invisible...) harremanetan jartzeko.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerria Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostegunetan, 10:30ean.

Nanni Balestrini, idazlea

“MATXINADAK EZ DIRA PAPEREAN ASMATZEN, EKINEZ BAIZIK: BORROKAK EGINEZ DAKIZU NOLA BORROKATU”

Esperimentatzea gustatzen zaio Nanni Balestrini idazle italiarrari. 1935ean Milanen jaioa, ibilbide luzeko poeta, nobelagile eta saiogilea, ez dira letretakoak atsegin dituen esperimentu bakarrak: bere fikzioa da, segur aski, joan den mendeko bigarren erdiko mugimendu iraultzaile italiar berritzaileen kronika biziena. Bartzelonako Lital Liburu eta Ideia Erradikalen Azokan izan dugu harekin hitz egiteko aukera.



Maria Colera Intxausti

@mariacolera

“Berrogei mila auzipetu, hamabost mila espetxetatik paseak, sei mila zigortu... Zenbaki horien atzean ‘espetxe bereziak’, tortura, isolamendua, bi belaunaldietako onena isiltasunera bideratuta”. Horrela laburbildu zenuen Italiako “demokrazia” defendatzeko operazio bikaina”, Primo Moronirekin batera idatzitako *L’orda d’oro* (1968-1977). *La grande ondata rivoluzionaria e creativa, politica ed esistenziale* saiakeran. Urte haietatik zer gelditzen da egungo demokrazia italiarrean? Nork hartu du orduko lekukoa?

Zerrenda luze horretan gauza gehiago erantsi behar dira: 70eko urteen amaieran, “70eko mugimendua”-ren amaiera ekarri zuen errepresio handiari jarraiki, orduko burkide askok beren buruaz beste egin zuten, ezinezkoa iruditzen baitzitzaien garai eder hark amaiera izatea eta zerbait askoz txarragoa etortzea gainera. Gaur egun sinestezina dirudi, baina suizidio asko izan zen, bereziki gazteen artean, “77ko mugimendua” delakoa bizi izan zuten artean. Dagoeneko unibertsitatean zebilen 68koaz bestelako belaunaldia zen hura, 76-77 urte inguruan 15-16 urte zeuzkaten haiek gazteentzat ezin ederragoa zen bizimodu berria aurkitu zuten bat-ba-

tean, eta zorion handiz bizi izan zuten, gauzak elkarrekin egiteak dakarren pozaz, elkarrekin bizi eta dena modu kolektiboan egitearen poztasunaz. Goizetik gauera bukatu egin zen hori guztia, baina bizitza horrelakoa zela pentsatzen zuten gazte haiek. Bat-batean hori guztia kendu zietenean, etsipen betea iritsi zen. Gauza gehiago gertatu zen, ordea. Beste asko den-dena ahazten saiatu ziren, etsipen haren ordezkioak bilatzen, eta heroinaren bidea hartu zuten, bazter guztietara zabaldua baitzen, nahita seguruenik. Bi belaunaldi galdu ziren horrela, bizitzatik eta italiar mundutik desagertuta: mugimenduan parte hartzen zuen jendea zen, borrokatzen zen jendea, jenderik bizkorren eta ausartena, irudimen handiena zeukana... Ikargarria izan zen, beldurgarria, eta Italiak burua jaso ezinik jarraitzen du ordutik, kakan murgilduta, herritarrak bere onera etorri ezinik. Ez da orduko ekinbide politiko eta sozial hura suspertzeko gai izan den belaunaldirik sortu.

Ze al zuen inork lekukoa hartu?

Galdera korapilatsua da hori, eta bi ikuspegitatik heldu behar zaio: bate-tik, 70eko hamarkadako borroka gertatu ziren testuinguru berezia hartu

behar dugu kontuan. Hura guztia 1968 eta gero gertatu zen, autoritarismoaren aurka eta askapenaren alde borrokatu zen garai haren ondoren. Era guztietako lorpenak izan ziren orduan, feminismoa sortu zen, auzitan jarri zen familia-erredua, emakumeen eta gizonen arteko erlazioak... eta gaur egun bizi dugun bizimodu modernoa finkatu zen. Zuek ezin duzue imajinatu gauzak nola ziren 68a baino lehen, gazteak nola bizi ziren, familiak nola bizi ziren... Guztiz bestelakoa zen dena. Aldaketa hura gertatu zen, beraz, eta hori izan zen urte haietako lehen zatia. Bestetik, politikarekin lotura zuzenagoa zeukan aldea zegoen, langile-borrokekin lotura zeukana, baina horrek ez du loturarik gaur egun dugunarekin, guztiz bestelako mundua baitzen ordukoa: ekoizpenaren mundua, industriaren mundua, eta hori guztia erabat aldatu da, fabrikak joan egin dira, ez dago orduko langile-klaserik, eta abar; eta, beraz, gaur egun orduko gauza berak egin daitezkeela pentsatzea okerra da eta are, arriskutsua ere bada. Urte haietako irakaspenak, baina, kontuan har ditzakegu. Historiako garai batzuetan matxinatzeko aukera egoten



CLARA ASIN FERRER

da, eta orduan egokia eta bidezkoa izaten da matxinatzea. Historian gertatu dira halakoak: Frantziako Iraultza gertatu zen, Boltxebikeen Iraultza... Italiako 1970ekoa ez zen iraultza handia izan, matxinada-saiakera baizik, une jakin batean gertatu zena, eta gazteen parte-hartze handia izan zuena. Horri berriz heletzea dago, baina ez eduki berarekin edo modu berean, gauzak zeharo aldatu dira eta. Modu berriak aurkitu beharra dago, beraz, modu berriak mito zahar haie-tan... Gogoan dut nola 1970eko hamarkadan taldetxo asko eta asko zegoen, era

“Gaur egun 1970eko hamarkadako gauza berak egin daitezkeela pentsatzea okerra da. Urte haietako irakaspenak, baina, kontuan har ditzakegu”

guztietako talde politikoak, bazeuden maoistak, Maok Txinan egin zuena egin beharra zegoela uste zutenak, baina horrek ez du zentzurik. Beste batzuek Errusiakoa bezalako iraultza egin behar zela pentsatzen zuten, halakoak egin behar zirela... Ez. Garai bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bere molde bereziak, eta errealitatea denaren arabera kolpekatu beharra dago, ez fantasia historikoak agintzen digunaren arabera.

Gli invisibili (Ikusezinak) isiltasuna hautsi beharraz hitz egiten duzu: “hitz egin hitz egin hainbeste gauzez hitz egin denari buruz hitz egin azkenik hitz egin”. Liburua mintzakiderik gabe amaitzen da, ordea, protagonistaren hitz hauekin: “ezinezkoa da zuek zaudeten hilerri erraldoia baino ez egotea kanpoan entzuten nauzue ez dut entzuten ez zaituztet entzuten dagoeneko ez dut ezer entzuten”. Osatu al gara “ezer ez” horretatik? Ba al da inor beste aldean, ba al da hilerri erraldoi horren aurka borrokatu nahi denik?

Espetxean dagoelako dio hori, eta kanpoaldearekin komunikatu nahi du, eta agerikoa denez ezinezkoa da, baina era berean gaur egun gertatzen denaren irudia ere izan daiteke. Zera galdetzen nuen orduan: ba al da komunikatzeko aukerarik? Erantzuna zeuon esku dago. Gutako bakoitzak egiten dugunaren esku, alegia. Erantzunak ez baitira berez etortzen, beren kabuz bezala, politika egitetik baizik, zentzu sozial eta kolektiboan. Subjektibotasunetik abiatzen den ekimen bat behar da, inguratzen gaituzten egoerekin bat datorrena. Ezin egon gaitzeko ahotsen batek deituko gaituen zain. Geu gara gure borrokekin bat egingo duten beste batzuen bila abiatu behar garenak.



ARGIA 2017ko egutegia

Ez beldurrik izan datorrenari... eskatu orain 2017ko ARGIAren egutegia eta irailean eskuratuko duzu

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Egutegia

9€

50€

Egurrezko taula egutegia opari

La violencia ilustrata (Indarkeria ilustrata) demokrazia burgesak berezkoa duen indarkeriaren fintasuna erakusten digu: kapitalismoaren baldintza ezinbesteko diren esplotazio, suntsiketa eta heriotzaren normaltasuna, indarkeria iraultzailearen aurrez aurre jarrita. Nola ikusten duzu kapitalismoaren egungo fasea, krisian sartzearekin batera hipokrisia bakezalearen maskara kendu eta bai gerraren bai neofaxismoaren tresnak erabiltzen hasi den honetan?

Hala da, bai, liburu hori kapitalismoak eta botere burgesak darabilten propaganda oinarrituta dago, haien indarkeria ilustratua, hain zuzen ere, liburuko testu guztiak egunkarietan irakurtzen diren gauzetan oinarrituta baitaude. Testu horiek auzitan jartzen saiatu nintzen, testu horiek deskonposatzen, ulertarazteko esaten duten guztia gezurra dela eta gauzak esparru jakin baten barruan kokatzen dituztela, beste esanahi bat emateko helburuz. Informazioaren aurkako indarkeria da hori, iritzi publikoa eraikitzeke eta manipulatzeko halako tentsio bat, botereak egiten duen guztiaren alderdi negatiboak ezabatu eta onak bakarrik erakusteko eragiketa, nahiz eta berez alderdi positibo horiek existitu ez. Munduan gertatzen denaren irakurketa gisa aurkeztzen zaigun horrek guztiz bortxatzen gaitu, bere indarkeria horren bidez. Gauzak, baina, hedabideek esaten digutenaz bestelakoak dira, errealtatea itxuraldatu egiten dute hedabideek, gu menderatu, oinperatu eta esklabo bihurtzeko.

Vogliamo tutto (Dena nahi dugu) liburuan dena posible zen borroka-garai bat aurkeztzen zaigu. Ugazabak mendearen hartzekeko itxaropenez hilabeteetan zehar zerua asaltatzeko eta dena lortzeko borrokatu eta gero, “zeruertzean altxatzen den eguzki gorrixka eder bat”-ekin amaitzen da soldatapeko lanak berekin dakarren indarkeriaren deskribapenik soilen eta aldi berean zorrotzenetako bat dakarkigun kontakizuna. Zer egin daiteke gaur egun soldatapeko esklabotzaren indargabetzea gure borroken erdigunean jartzeko?

Irribarrez ageri den eguzkia... Eguzkiaren erreferentzia hori ironiko samarra da, garai hartako literatura komunista etorkizuneko eguzkiaz mintzatzen baitzen, eta horregatik ageri da etorkizuneko eguzki hori. Eguzki horretaz ari



DANI MORELL / FIRA LITERAL

“Historiako garai batzuetan matxinatzeko aukera egoten da, eta orduan egokia eta bidezkoa izaten da matxinatzea”

“Idatz nitzake maitasun-istorioak edo idatz nezake langile-borrokei buruzko eleberri bat, eta azken hori aukeratu izan dut, baina hori idazle gisa egiten dut, ez langile gisa”

da pertsonaia. Autoironiko samarra da, baina, zera esaten baitu: “Ederki, borrokatu gara poliziaren kontra, egin dugu greba hau eta borroka hau, eta abar, eta orain kito, beste fase batean gaude orain, gero ikusiko dugu...”.

Gaur egun zer egin ez zaio, baina, hari edo niri galdetu behar, ni ez bainaiz inolako teoriarari politikoa, neure liburuak gauzak gertatu eta gero idatzi ditut beti, ez da izan aurrena nik liburuak idatzi eta gero jendea gauzak egiteari lotu zaiola. Nahiko nuke hori egin ahal izatea! Are hobeto, esadazue zer egin behar den, eta nik gero liburu bat idatziko dizuet! Hementxe nago, zain!

Lehen esan dudana moduan, egoera guztiz aldatu da, bestelakoa da zeharo, gaur egungo lana ez dago fabriketan, au-

tomatizazioa daukagu, makinak, ordenagailuak, denbora eta pertsonak mugatzen dituzten era guztietako gailuak daude, lan-denbora eta lanetik kanpoko bereizten ziren garaiko mugak ezabatzen dituzten gailuak. Jendea orain egunero, orduro dago ekoizpen-ziklo horretan murgilduta... eta zerbait egin beharra dago, bai, baina jakintza kolektibotik abiatuta, ez teoriarari handiren baten mende egonda. Marxek berak ere ez zuen borrokak irabazteko modua asmatu berez, borrokak deskribatu egin zituen, haien deskribapena egin zuen, baina ez zuen esan egoera bakoitzean zer egin behar den. Eta gauza hauek ez dira paperean asmatzen, ekinez baizik: borrokak eginez dakizu nola borrokatu; ez da aurrena eskuliburu eta gero “ea bada, egin dezagun hori”... Ez da antzerki liburuekin bezala gertatzen, badaukazula testua eta gero testu hori interpretatzen duzula. Nik behintzat hala ikusten dut, gero egon daitezke teoriarariak, filosofoak, jarraibide onak emateko eta... Baina gauzak ekintza kolektibotik sortzen dira, zerbait egin beharra dagoela ikusi eta masek gauzak asmatzeari ekiten diotenean, borrokak asmatzen dituen burmuin kolektibo handiari esker. Hala gertatu zen *Vogliamo tutto*ko borrokak izan zirenean, egunero sortzen ziren borrokak ziren.

Adierazgarria da zure pertsonaia gehienek ez dutela izen berezirik, subjektu kolektibo bat gorpuzten baitute, ni indibidualaren sublimazioaren garaian, hain zuzen ere. Zein subjektu kolektibotako kide sentitzen zara gaur egun? Eta nori zuzentzen diozu eta nondik idazten duzu zure obra?

Erantzuten zail samarra da hori. Idazleen subjektu kolektiboko kide sentitzen naiz, nik, idazlea naizen aldetik, idatzi egiten baitut, nagusiki; nahi dudana idazten dut, nahi dudana idazteko askatasuna daukat: idatz nitzake maitasun-istorioak edo idatz nezake langile-borrokei buruzko eleberri bat, eta azken hori aukeratu izan dut, baina hori idazle gisa egiten dut, ez langile gisa. Eta bitxia gertatzen da, lehen pertsona idatzitako liburu bat argitaratu eta gero, jende inuzente samarra etorri izan baitzait esanez: “latza behar zuen Fiaten lanean zenbiltzanean”. “Ez, begira, ez naiz inoiz Fiatetako langilea izan”. Eta *Gli invisibili*ekin berdin, esaten zida-

ten: "Latza behar zuen espetxean egon zinenean". "Kontuz, ni ez bainaiz inoiz espetxean egon". Hori normala da, ordea, lehen pertsonan idatzitako eleberri guztiekin jendeak autobiografikoak direla pentsatzen baitu beti.

Baina orain ez ginen autobiografiari buruz ari, kideza politikoaz baizik; eta nik neure kideza politikoa daukat, noski, ni komunista naiz, baina liburu bat idazten dudanean ez dut komunista gisa idazten, baizik eta idazle gisa, argudio komunisten gainean.

Zeure obraren beste ezaugarri bereizgarri bat hizkuntzarekin jolasteko daukazu modua da, nola bihurritzen duzun, esanezina dena aurkeztu eta errepresentatzeko, haustura bat ezartzeko ideologia hertsatzaile bat taxutzen duen lengoaiarekin. Paragrafo hasieran letra xeheak jarri eta komarik ez erabiliz egiten duzu. Zergatik?

Berez bi estilo erabiltzen ditut. *La violencia ilustrata* hedabideen hizkera-moldean oinarrituta dago hein handi batean, egunkarietako hizkeran bereziki, eta telebistakoan ere bai tarteka, mass mediaen hizkeran edozein kasutan. Eta nik egiten dudana zera da: hizkera hori hartu eta txikitu, puskatu, zati txiki pilo batean banatu eta zati horiek beren artean nahasten ditut, neure iritziz testu horiek ezkututzen duten alderdi negatiboa agerian uzteko: hori da erabiltzen dudana sistemetako bat. Beste liburuetan, aldiz *-Vogliamo tutto* eta *Gli invisibili*, adibidez-, ahots bat dago, eta pertsonaiek ez daukate izenik eta psikologiarik, pertsonaia kolektiboak direlako. *Vogliamo tutto* pertsonaia, esate baterako, Fiateko langilea da, eta Fiateko beste mila langilek, beste hamar mila langilek, dituztenak bezalako erreakzio psikologikoak eta jokamoldeak ditu. Pertsonaia orokor bat da, eta halakoa da *Gli invisibili* ere: 1970eko hamarkadako militante politikoa da, beste militante guztien ezaugarri berdinak dituen; pertsonaia bat da, beraz, ez pertsona jakin bat, eleberri tradizioaletan gertatzen den bezala, beren pertsonaia indibidual izen-abizendunekin, beren guraso, seme-alaba, maitasun-istorio eta mundu partikular bereziarekin. Ez, hemen bestelako pertsonaia bat daukagu, epiko izendatu genezakeen pertsonaia bat, antzinako historia epikoetako pertsonaia sinbolikoen tankerakoa.

Zeure azken eleberrian, *Sandokan*, mafiaz diharduzu, eta Italiako Estatuko zati bereizezin gisa aurkezten duzu: ez anomalia tekniko edo sistemaren akats gisa, ez auzi kontingente gisa, Estatu horren berezko ezaugarri gisa baizik. Gauzak zenbateraino dira horrela gaur egun, eta nola egokitu da mafieren funtzionatzeko moldea kapitalismoaren egungo fasera?

Horixe da Italia. Edonola ere, esango nuke kapitalismoak beti izan duela joera kriminal bat baina, zuhurtziagatik, legea errespetatzen saiatu da. Enpresa handiak beti saiatzen dira balantzeak manipulatzeko, langileei gutxiago ordaintzen; baina kontuz ibili beharra daukate, hor baitaude legeak, epaitegiak... esku hartzeko prest, eta hori dela-eta legea betetzearen eta urratzearen arteko marra estuan ibiltzen dira beti. Erakunde kriminalen kasuan berriaz, gauzak legez kanpo egiten dira edo ezkutuan, eta mafiosoen buruzagiek pertsona errespetagarri gisa agertu behar badute ere, gero hilketak, lapurretak eta denetik egiten dute. Dena den, nik ez dut alde handirik ikusten batzuen eta besteen artean: pertsonen jarduerak eta errenta ia guzti-guztiak biltzen dituen sistema bat dago, dena mafiak nahi duen bezala funtzionarazten duena. Baina, 1970eko hamarkadan ez bezala, gaur egun ez dago kolektiboki matxintzeko modu hura. Gaur egun, sistema honetatik ihes egin nahi izanez gero, matxinada indibidualaren irtenbidea baino ez da gelditzen, alde egitekoa, beste norabait joatekoa. Horixe da ziklo hartako ondorioa: 1968an dena zen positiboa, 1970eko hamarkadan dena zen ezin ederragoa, gero dena suntsitu zen eta azkenik desertu handi bat bihurtu zen guztia.

Azken galdera, bukatzeko: zerbait idazten ari zara orain?

Ez, ez, nik ezin baitut gauza hutsen gainean, existitzen ez denaren gainean idatzi. Zain nago. Baina ez dut uste... Nahiko nuke. Baina hori da denok nahi duguna, ezta? Denok nahi dugu. Denok nahi dugu dena. Eta zuek egiteko zain gaude, gazteok baitzarete gauzak egin behar dituztenak. Ni iritsiko naiz zerbait ikustera, agian, azkar baldin bazabiltzate... Baina, bizkor ibili! Laurogei urte badituzte eta ez zait denbora luzerik gelditzen... ■



Dorleta auzoa, z/g.

20540 ESKORLATZA

Tel.: 943 71 41 57

<http://mukom.mondragon.edu/lanki>



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Martin Ugalde
Kultur Parkea
20140 ANDOAIN
Tel.: 943 591 200
www.kontseilua.eus

**euskaraz
bizi
nahi dut**



Ametzagaina Kalea 19
20012 Donostia

Tel.: (+34) 686 72 88 43
(+34) 652 731 304

harremanak@joxemizumalabe.eus



**reas
euskadi**

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Venezuela plaza 1 - 2 ezk.
48001 BILBO

Tel.: 944 160 566

reaseuskadi@reaseuskadi.net

www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Aniztasunaren alde



Xabier Etxaniz Erle



Munstro Arrosa

OLGA DE DIOS

Irudia: Olga de Dios
Itzulpena: Ipar Alkain
Denonartean, 2016
36 orrialde
Haurrentzat

Duela hiru urte argitaratu zen lehen aldiz liburu hau, eta berehala irabazi zituen hainbat sari 2013 urte horretan: egile berriei ematen zaien Aurelio Blanco saria, Apirila saria, Shangaiko *Children's Book Faireko* saria haurrentzako album onenari... Orain, liburuak zenbait hizkuntzatan ibilbide arrakastatsua izan ondoren euskaraz gozatzeko aukera dugu Ipar Alkainen itzulpenari esker.

“Jaio aurretik, dagoeneko besteak ez bezalakoa zen” esaldiarekin ekiten dio egileak narrazioari; eta hitzekin batera, albumetan hain garrantzitsua den irudien arloan, zazpi arrautza aurkitzen ditugu, sei zuri-txiki eta bestea handia-arrosa. Garbi dago ez zela besteak bezalakoa. Eta lehen irudi horrek *Ahate itsusia* ekarri digu gogora; Andersenek ipuin ezagunean bere anai-arreben aldean protagonista ere “ezberdina” zelako, arrautza batetik sortua... baina liburu honetan berehala ikusiko dugu protagonista ez dela hegaztia, ez dela ezberdina; oso ezberdina baizik. Sei hegazti kumeren ondoan ageri dena munstro bat delako, munstro arrosa bat.

Abiapuntu horretatik, egileak *Munstro Arrosa* ren ezberdintasunak eta zailtasunak deskribatzen dizkigu, hitz gutxi erabiliz eta irudiei mezu aldetik indar handia emanez, testuen eta irudien arteko informazio osaketa lortuz. Ezberdina den horrek bere bideari ekin beharko dio, “beste leku batzuk aurkitzearekin egiten zuen amets”, eta horrela bidaia batean hasiko da, zuri beltzeko mundu horretatik urrunduz, neke handiz mendiak, itsasoak eta baita basamortuak ere igaroz, harik eta zuri-beltza zen mundu horretan eguzkiaren horitasuna, euriaren urdina eta koloreen

mundua agertu arte. Ortzadarra hasieran eta pertsonaiak ezberdinak ageri diren lurraldea ondoren. *Munstro Arrosa*, *Hiru begiko igela*-rekin, *Pilota piztiarekin*, *Txori horiarekin* edo *Munstro urdinarekin* elkartuko da, eta han, bera ez da berezia izango, ez da arraroa.

Aniztasunaren aldeko mezua dugu *Munstro Arrosa* hau, bere sinpletasunean (azaleko irudian bertan nabaria da hau) mezu argia adierazten duen albuma. Umore ukitu batekin, adierazpen sinple eta laburren bidez, ideia gutxi eta argiak erabiliz, irudietan kolore eta elementu gehiegi erabili gabe, Olga de Diosen istorio sinplea eta indar handikoa lortu du. Bizi garen mundu honetan besteak onartzearen aldeko mezua, ezberdintasunen aldekoa, jende, arraza, joera ezberdinak onartuz bizi hobea eskaintzen digun lana. Amaierara arte, jokabide positibo eta ireki hori bultzatzen duen albuma; izan ere irudian *Munstro Arrosa* ikus dezakegu irribarrez *Ongietorri* dioen kartel batekin eta urrutian hurbiltzen ari direlarik bere “sei anaia-arrebak”; “*Munstro Arrosa* LEKU honetan gertatu zen bizitzen, eta irribarrearegiteari ez zion sekula utzi”.

Eta hain zuzen horixe da gugan sorrarazi nahi duen edo sorrarazten duen sentimendua, irribarre batekin mundu hobe baten itxaropena. ■

Olga de Dios idazle
eta ilustratzaile
donostiarra.



» TELEGRAMA

Carvin Jones musikari estatubatuarra Bilboko Satellite T aretoan izango da ekainaren 24an: blues doinuen zaleentzat ezinbesteko zita *STOP* Donostiako Tabakalerak **Martin Rejtman** zine zuzendari argentinarrari eskainitako zikloaren ondoren, zuzendariaren bisita izango du ekainaren 24an, 19:00etatik aurrera *STOP* **Donibane-Ziburuko Gaztetxeak** 25 urte bete dituela-eta, egun osoko egitaraua prestatu dute ekainaren 25erako: aperitifa, bazkaria, arratsalde animatua eta kontzertu sorta gauerako *STOP*

» DISKOA

Delinkuentzia bazterrean, biziraun eta borrokan



Iker Barandiaran



Larga vida al infierno

RAT-ZINGER

Rock Estatal Records, 2016

Rat-Zinger talde bilbotarra.



“Islamismoak gurea egingo du, gu ezabatu, bere egia bakarraren azpian zapaldu eta ezabatu nahi gaitu. Horregatik, lehenbailehen berarekin bukatu behar dugu, eta horretarako gure muga guztiak itxi behar ditugu, gu babesten gaituzten hesietan zanpatuta eta gu inguratzen gaituzten itsasoetan itota hil daitezen, madarikatuak!”

Hori guztia jaio ginen unetik gaur egunera arte ezarri dizkiguten gezurretako beste bat da. Izan ere, oligarkia kristauaren balioen azpian alienatuak eta makurtuak gaude guztiok. Puteatutako bizitza miserablearen betiko kontua, guzti batzuk gure kontu bizi daitezen. Birtartean kapitalismo erasokorrenaren erakusleioekin itsututa aske garela uste dugu, erosi nahiko genukeena aukeratzeko gai garelako, eskubide guztiak lapurtzen dizkiguten bitartean.

Rat-zinger taldeak irudikatzen du sistema zikin honetaz nazkatuta dagoen kalea, jende soila, batzuen ustez zabarra dena eta prest dagoena bere bizitzari akabera erailtzen emateko, delinkuentziaren bazterretan biziraun eta borrokatzeko hautua egin dutenak. Bai, gero eta gehiago dira, eta are eta arriskutsuagoak.

14 bolbora eztanda, barrenak leheratzeko gai direnak, arnasa ere eteten dutenak, dagoeneko ez dagoelako ez denborarik ezta munizio nahikorik so-

tanadun pederasta zein inpunitate osoz aritzen diren eskrupulu gabeko patrioiak zigortzeko.

Sofistikazioendako denbora ere pasa da eta disko honetan Bilboko piztiak ia erabat alboratu du aurreko laneko ukitu metaleroa, bizitasun handiko hardcore-punk-rocka lantzeko, azkarrena eta mingarriena. Beraien kantuetan bat egiten dute RIP taldearen *Antimilitar* gogorra ekartzen duten erritmoek, punk-rock gitarreroak, neurririk gabeko punteatzeek, rock-and-roll menderaezinak, Motörhead zainetan, jakina, eta kaleko-rock sinesgarri eta *navajero*enak, soilik gutxi batzuek –kalean bizi direnek–, bere esentzian transmititzen dakitena.

Hiru dimentsioko formatu oso bitxian kaleratutako lan honetan Kaos Urbano taldekoeen laguntza izan dute, *Unete al terror* piezan lur azpiko Madril eta Bilbo anaituz. Porco Bravo taldeko Manuk ahotsak sartu ditu *No soy Nazareth* rock-and-roll azkarrean, jasotako ostia guztien oka eginez. *Kaos en mi* autobiografikoan Non Servium taldeko lagunek esku hartu dute. Eta *Renegados* piezako hitzak idazteaz gain, mikroa hartuta Txarly Usherrek abestu du (La Casa Usher, Los Carniceros del Norte, Radio Crimen eta beste talde askotan ibilia).

Dagoeneko aita santu bat akabatu dute; gorrotoz armatuak daude eta inork ez ditu gelditu behar, ez aita santuak ezta haren sasi-amak ere. Bota zure burua albo batera edo armaz hornitu beraiekin estoldatan. ■

Azkena, lehengora bueltan

AZKENA ROCK FESTIBALA

Ekainaren 17 eta 18an; Gasteizen.
28 taldek hartu zuten parte.



Jon Aranburu Artano
@jonaranburu

15 urte bete ditu Azkena Rock festibalak. 15 urtetan talde asko eta oso interesgarriak pasa dira aurrena Azkena aretotik (oraingo Jimmy Jazz), eta gero Mendizabalako aparkalekutik. Azken urteetako joera, baina, beheranzkoa izan da. Talde interesgarri gutxi, jendetza ekartzearen aitzakian, Rock-a eta bere ahizpen erakusleio txukuna izan zena, eta musikazaleen errespetua zue-na, ohiko festibal-parke tematiko bihurtzen ari zen.

Aurten, hala ere, bazegoen esperantza, kartela ikusita. The Who buru, Hellacopters azken momentuan gehituak (Primal Scream-en ordeztu) eta beste hainbat izen handi, eta ez hain handi.

Ostiralean, nabarmentzekoak Americana estiloaren bueltan ibili zirenak, eta euren artean, batez ere, Daniel Romano kanadarra. 70eko hamarkadako rockean ongi errotutako proposamena, eta kantu dotoreak. Gertutik jarraitu beharrekoak.

Lucinda Williams zen ostiraleko izen handietako bat. Banda sinplea ekarri



Lucinda Williams ekinean.

RHYTHM AND PHOTOS

zuen: bateria, gitarra eta baxua, beraz gain. Sinplea, baina indartsua. Reggae ukituko pasarte bat kenduta, emanaldi bikaina eskaini zuen Louisianarrak, Donald Trump-en kontrako aldarri eta guzti.

Hellacopters eta Danzig ere izen handien artean zeuden, baina ez zituzten jendearen espektatibak bete. Lehenek beraien lehen diskoa jo zuten oso-osorik, eta ez zuten lortu jendearekin konektatzea, bisetan disko berriagoetako kantu pare bat jo arte. Danzig berriz, egiari zor, ez genuen ikusi. Hori bai, "katedra" esandakoaren arabera, ez genuen ezer galdu.

Luke Winslow King New Orleansdarrak izan zen gaueko beste sorpresa dotore bat: ustez akustikoan arituko zena, talde elektrikoarekin etorri zen eta New Orleansko blues erakustaldi galanta eman ziguten.

Larunbatean, azpimarratzekoa Sumision City Blues eta Cobra izan zirela, ostiralean aritu ziren Los Brazosekin batera, Euskal Herriko eszenaren ordezkari, eta euskara (kanta eta kanta


artean, hori bai) festibalera eraman zutenak. Bestela, Murciako jaialdi bat ere izan zitekeen.

Australiarren set-a ere, arratsaldean aritu ziren Radio Birdman eta The Scientistekin, dotore aritu ziren. Imelda May irlandarrak ere dantzan jarri gintuen rockabilly eta country uztartekita dotorearekin. Gozatua izan zen. The Who zetozen, baina.

23:00etan puntuan ekin zioten lanari Daltrey, Townsend eta konpainiak, *I Can't Explain*ekin. Hasieratik errota-rena egin eta egin, gogotsu eta indartsu ikusi genuen Pete Townsendar. Azkena jo zuten *Won't Get Fooled Again* arte, ordu eta erdiko kantu zerrenda dotorea eskaini ziguten; izan ere, badute non aukeratua. Duin aritu ziren, eta ia tatxarik gabeko emanaldia eskaini zuten, eta gozatu genuen.

Azken urte kaskarrekin buelta eman zaien inpresioa dut. Taldeen aukeraketan asmatu dela, eta lehen bezala, erreferentziak jaialdia izatera buelta dai-tekeela horrela jarraitzen badu. ■

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:



1. Erditze berean jaiotako bi umeetako bakoitza. Apaiz ortodoxo. 2. Ez hotz ez bero. Lakioa, segada. 3. Eztabaida. 4. Arroka gogorra. 5. Eragozpen handiak dituen. Artaziak. 6. Zati, puska. **Argazkian.** 7. Haragiki urinetan prestatua. Kaleko. 8. Basamortu. Basoan hazi eta bizi den katu.

Goitik behera:

1. Lege bat indargabe uzteko eskubide. Oihal fin eta garden. 2. ...-apa, hitzez hitz. Otzara handi. 3. Zein arrazoiengatik? 4. Arbelan idazteko erabiltzen dena. 5. Zabaldutako hitzaren erdian. Eritreako domeinua. 6. Hitz ematea. Zerezko atzizkia. 7. Ilargiaren orbitan, Lurretik hurbilen dagoen puntu. 8. Opaka. 9. Italiako ibaia. Bi gauzaren arteko indar berdintasuna. 10. Eusko Alderdi Jeltzalea. Apaiz nagusi judu. 11. Islada. 12. Zareten hauek. 13. Ezegazteko partikula. 14. Akats, narrio (alderantziz). 15. Aldi berean kantatzen duen abeslari multzo.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Akatsik gabe
Ikur, marka
Urratsak emanaz
Ugaztun izena
Diru truke eskuratu
Jarri, jesarri
Mesede, fabore
Madarikazio, arnegu
Kalentura
Itsas kirola
Elementu kimiko
Ziur
Adineko gizona

Sudokua

Erraza

		9	6					
6		5	4	9				3
	7	8		1	5		4	
9			7					8
5	6						9	7
4					1			2
	5		3	8		9	7	
8				6	7	1		4
					9	2		

Zaila

	7		2		9		6	8
4								
		2		8		3		4
						7	9	
3		9				8		2
	2	7						
8		1		3		2		
								6
2	6		5		1		8	

Soluzioak

"Berez etortzen dena, ez da berez joaten"

ESAJERA ZAHARRA

ANAGRAMAK
ZUZEN
ZEINU
OINEZ
OREIN
EROSI
ESERI
ESKER
SAKRE
SUKAR
SURFA
SUFRE
SECUR
AGURE

ANAGRAMAK

14. Akat. 15. Koru.

ESKEKESZUM: 1. Izkazk, foppe, z. dpep, zepoda.
3. Thiraba, 4. Granito, 5. Zaili, Gurazeak 6. Taro,
Zeezensuzko, 7. Urhinko, Kaletar, 8. Lekaro, Basakatu.
Gutik beheara: 1. Betu, Tul, 2. Ipi, Zare, 3. Zergatik.
4. Klartona, 5. Bal, Er, 6. Zin, Zko, 7. Perigeo, 8. Opatuz,
9. Po, Orefa, 10. Eaj, Amas, 11. Isla, 12. Zuek, 13. Ezta.

Pablo La Parra. Zinema militantearen erresonantziak



Gaur egungo irudi askotan aurkitzen ditugu garai bateko protesten eszenak, behin eta berriz errepikatuko balira bezala. Zinemari esker jakinarazten zaizkigu aspaldiko promesa politikoak, bete gabe geratu zirenak, egun betetzear daudenak. Erresonantzia horiek aztertzea da Pablo La Parra valentziarraren lana New Yorkeko Unibertsitatean; hilabeteotan Tabakaleran dabil egoiliar, bere proiektuan sakontzen.

“Ez dakit gaur egun zinema militanteaz hitz egiterik dagoen”



Arantza Santesteban

@a_santesteban

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Baliabideak

“Oso garrantzitsua da ulertzea zinema militantea ekoizpen modu jakin batzuk eskuratzearekin lotuta zegoela: subestandar formatuek (8x16 mm) zentsurarekiko eta sare komertzialeko independentzia ekarri zuten, tresneria arinek ahalbidetu zuten filmazioak eta proiektzioak eramatea errebolta sozialak gertatzen ari ziren lekuetara. Gaur egungo mugimendu sozial eta politikoek baliabide digitalak eta sare sozialak bere egiten dituztenean antzeko zerbait iradokitzen ari dira: diskurtso disidenteen zirkulazioa eta ikusgarritasuna ematen da eta, era berean, bestelako medioetan tokirik izango ez luketen subjektibitate politikoentzako leku dira”.

Zehazki, zer ari zara lantzen Tabakalerako egonaldi honetan?

Garatzen ari naizen proiektuaren izenburua *Europa, geroaldi burutua* da. Ikerketa lana da, publikoari zuzendutako egitarau batekin osatzen dena. Funtsen, proiektuaren xedea da praktika zinematografiko garaikideak eta 60ko eta 70eko hamarkadetako zinema militantetik sortutako artxiboa harremanetan jartzea.

Zinema militantea garaiko errebolten erretratua da?

Zinema militante deiturikoaren bilakera liluragarria izan da. Ez zen mugimendu koherente eta bateratua izan, zinema eta politikaren arteko harremana birdefinitzen saiatu ziren praktiken multzo heterogeneoa izan zen. Zinema horren garapena bereizetza da nazio askapen mugimenduetan eta 68ko errebolten testuinguruan sortu ziren disidentzia politikoen forma berrietatik. Esango nuke zinemagile haien interesa ez zela film bidez garaiko giroa erretratatzeko soilik; borroka horien guztien parte aktibo izan nahi zuten.

Baina horretarako zinema arau askotaz libratu behar zen, ezta?

Jakina. Horrek zinearen ekoizpeneko baliabideak errotik aldatzea eragin zuen, egiletza kolektibo zein asanblearioak entseatuz eta orduko militanteen parte-hartzea ziurtatuz. Pelikulen banaketari dagokionez, haien zirkulazioa bermatzeko sare autogestionatuak osatzen zituzten eta jendearen esku egon zitezen fabriketara edota ikasgeletara eramaten zituzten. Eztabaida sakonak sortzen ziren eta ekintza politikorako tresna bihurtzen ziren.

Zein da film-artxibategi horren interesa zure ustez?

Kristin Ross-ek dioen modura, 68ko maiatza izan da, beste askorekin alderatuz, narratiboki gehien desitxuratu den pasarte politikoa: urte haietako borroka 80 eta 90eko hamarkadetako narrazio neoliberalak filtratuta iritsi zaizkigu eta horiekin ulertzen ez ditugun gertakariak kontatzen zaizkigu, distorsionaturik eta despolitizatutako estereotipoen bidez. Zinema militantea borroka horien guztien erdigunean



sortu zen, eta horregatik militanteak eurak ikusten ditugu hitza hartzen. Nire ustez, gerturatze horrek oso esperientzia maila bitxia eskaini digu: gaurko irakurketatik iraganean ongi edo gaizki zer egin zuten aztertzea baino, modu sentikorrean garai bateko praktika eta subjektibitate politikoekin kontaktuan sartzeta da interesgarriena. Zein mundu amesten zuten? Nola lortu nahi zuten? Nola adierazten zuten gogo hori?

68ko irudiek eta gaur egungo mobilizazioetan ikusitakoek harremanik al dute?

Krisiak eta egun ematen ari diren borrokek Europa neoliberalaren erabateko porrota utzi dute agerian. Ezagutzen dugun Europa hau 60ko hamarkada luzean eman ziren borroka guztien arrastoen hondarretan eraiki da. Nolabait esatearren, ematen du garai hartako irudiek ez gaituztela abandonatu eta gaurko une historiko eta sozialean baino ezin dugula ulertu ezkutuan gordetzen duten promesa politikoa. Ez da kasualitatea beraz, egunotan garai hartako film-artxibo militantea berrerabiltzen eta berrinterpretatzen ari dela ikustea; esan

“Ez da kasualitatea egunotan garai bateko film-artxibo militantea berrerabiltzea eta berrinterpretatzea; esan liteke iraganeko irudi horiek baldintzatu egiten dutela orainaldia irudikatze dugu gaitasuna”.

liteke iraganeko irudi horiek baldintzatu egiten dutela orainaldia irudikatze eta erakusteko dugu gaitasuna.

Zinemagileen eta egitura politikoen arteko harremana ez da beti xamurra izan...

Nire ustez, zinema militantearen alerik interesgarrienak alderdi eta sindikatuetatik kanpo egindakoak izan ziren. Alderdi batzuek zinemarekiko interesa erakutsi bazuten ere –batez ere, Italiako Alderdi Komunistak–, uste dut, orokorrean, etengabeko tentsioak bizi zuela harreman hori. Oinarritzko arazo bat zegoen: zinema militanteak errepresentazioaren ohiko moduen kritika zorrotza egiten zuen, behetik egindako diskurtsoaren ekoizpena aldarrikatzen zuen eta horrek zuzenean egiten zuen talika alderdi leninisten logika bertikal eta hierarkikoarekin. Auzi hori oso argia da *off* ahotsaren erabilerarekin: dokumen-

tal politikoen ikuskera klasikoaren aurrean –non narratzaile orojakileak eszenak egoki kontatzen baitizkigun–, zinema militantearen pelikuletan narratzaile kolektiboek hartu zuten hitza. Askotan egin izan da zinema militantearen karikaturizazioa, sinplizatzea eta lausotzea joz, baina artxibo honen tentuzko azterketa batek garaiko subjektibitate politikoen aberastasuna erakusten digu.

Egiten al da gaur egun zinema militanterik?

Ez dakit gaur egun zinema militanteaz hitz egiterik dagoen. Jadanik ez da termino hori erabiltzen, eta garai historiko eta sozial jakin batera bideratzen gaitu. Proiektu honekin dugu asmoa ordea, praktika bisual garaikideen eta artxibo militante horren artean dauden erresonantziak aztertzea da. Gaur egun irudi alternatiboen politizazioa, haien distribuzioa edo erakustaldia ahalbidetzen duten estrategia asko ezin dira aztertu zinema militantearekin duten harremana ulertu gabe. Erresonantzia horiek leku askotan daude: zinemagileengan, egungo kooperatibetan, zine-forumetan, gunen autogestioan, okupatutako plazetan... ■



Bilboko alkatea orkatila bihurritu baino segundo bat lehenago.

ERREKORRA!: EAJk 249 auresku egin ditu Espainiako hauteskundeetan kanpainen

“Esfortzu guztiak dira garrantzitsuak Madrilen euskotarren benetako aho-
tsa entzun dadin”, adierazi du Dogartzi
Sainz de Txakarrankua EAJko ekital-
di folklorikoen arduradunak. “Guztira,
gure aureskulari bipilek 1.523 bider
altxatu dute hanka goraino-goraino no-
nahi antolatu ditugun mitin eta beste-
lako ekitaldi aspergarrietan; uste dugu
herriarrek jakingo dutela euren botoe-
kin lan handi hori baloratzen”. Analisten
esanetan, jeltzaleek politikan agertzen
dituzten dohainak ederto laburbiltzen
ditu aureskuak: “Hori da hori kabrio-
-

larik zailenak egin eta beti zutunik jaus-
ten asmatzea!”, jakinarazi dio Berandue-
giri eskusiban Miren Eguzkiñe Entrexat
kontu hauetan adituak.

Zurumurruek diotenez, EH Bilduk
ere aureskuen bidea jorratzeko auke-
ra aztertuko du ekainaren 26an aben-
duko emaitza txarrak errepikatuz gero.
“Agian momentua da joaldunen taktika
alboratu eta garai berrietara egokitze-
ko”, esan omen du Arnaldo Otegi bi-
lerra batean, eta denek burua gora eta
behera astindu dute arrazoia emanaz
bezala.

AUTZKUNDE TXANPAINA

Hal dugu!



Zorrak ezin kitatu



Ez da posible, ezin liteke



RH handiko txanpua



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTALETASUNA
EKONOMIA SOZIALA

ELIKADURA BURUJABETZA

INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzean* jasotzen den bezala, gaur egun, iraultzailea den gauza bakanetako bat baratzea da. Lurrarekiko lotura, elikadura burujabetza, bertako mozkinak, bioaniztasuna, osasuna, bizitza kalitatea, paisaia kulturala. Zer da ba iraultza? ARGIA burujabetzaren aldeko apustua egiten dugu, bai elikadurari dagokionean, baina baita komunikabide bezala, informazio burujabetzaren bidean ere.

EKAIKEKO ZOZKETAK



Mugarik gabe GKE
Material sortak

www.mugarikgabe.org



Jakion produktuak
Kontserba saskiak

www.jakion.es



Euskal Herriko Laborantza
Ganbararen DVD eta liburu sortak

www.ehlgbai.org



Jakoba Errekondoren Bizi
Baratzea eta Ilargiaren egutegia

www.bizibaratzea.eus

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

ASTEAZKENERO **ARGIA**N IKUSGAI

TXOMINISTAK



NAROA
MIKELARENA

JON ANDER
ALONSO

EDURNE
AZKARATE

EÑAUT
GANTXEGI

ENERITZ ARZALLUS · LANDER ARRETXE · MIKEL FERNANDEZ · UNAI GAZTELUMENDI · PERU ISASI · BEÑAT ITURRIOZ · ANE LUSARRETA · KEPA MATXAIN · MIKEL ROMAN · LAIDA ZABALA

